IDATZ & MINTZ
Literatur atalen sorta

41

Aurkibidea: Adolfo Arejita: LAUAXETA IPUINGIN. **3**. Alvaro Rabelli: ODISEA. **13**. Matxalen Antxustegi-Etxarte: NI? NOR ETE? **15**. Jon Arego: BLAS, OTEROKOA. **16**. Xabier Zalbide: ANTIOJU SALBATZAILEAK. **17**. Jabier Kalzakorta: *URETAKO JAUN* EDO *ZALDUKO JAUN*AREN BALADA. **20**. Asel Luzarraga: AITAREN BEGIRADA. **34**. Jon Arego: ALVARO CUNQUEIRO OLERKARIA. **37**. Sebastián García Trujillo: BIZIMINAREN ZIKLO OSATUA. **40**. LIBURUAK. **51**.

IDAZKARITZA BATZORDEA
Adolfo Arejita
Asier Astigarraga
Igone Etxebarria
Jesus A. Etxezarraga
Jabier Kalzakorta
Miren Agur Meabe
Lourdes Unzueta
Andres Urrutia

ARDURADUNA
Igone Etxebarria

DISEINU EDITORIALA
Ikeder, S. L.

Argitalpen hau Bilbon irarri da 2005eko abenduan, Gestingraf S. A. L. etxean, eta Ikur Fotokonposaketak taiutu dau Times eta Bodoni letra moldeez. Irudiak «5000 vignettes», «Trades» eta «laino guzien azpitik...» liburuetatik atera izan dira.

LABAYRU IKASTEGIA
Aretxabaleta, 1-1ngoa
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa:
labayru@labayru.org
48010 BILBAO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

bbk

ADOLFO AREJITA

Lauaxeta ipuingin

Esteban Urkiaga, edo Urkiaga'tar Esteban (1905-1937), ezizenez "Lauaxeta", olerkari legez dogu ezaguna batez be, euskal literaturan. Olerkaritzan izan genduan bide-urratzaile bere sasoian, *Bide barrijak* eta *Arrats-beran* poesi liburu bikainak eskintzen euskuzala urte gitxiren aldeaz, eta artean hainbat olerki solte aldizkarietan. Baina liburuok izango dira, bizi zala argitara emon zituan obra nagusiak, eta hareei esker egin da ezagun gehienbat gure literaturan. Bide batez esan daigun idazleak berak be bere poesia-sorkuntza izan ebala ardatz, bere burua literatotzat hartzeko. Egia da antzerkia, ipuina eta batez be kazetaritza ugari landu zituala, baina poeta-izate horrek aupatu eban, Lizardi lez, goi literaturaren zelaiko kide izatera.

Gainerako lanak egunkari edo aldizkarietan barreiaturik dagoz, batez be *Euzkadi* egunkarian, eta gaur egun bape eskura ez dagoz idatziok, egunkaria bera be eskuraerraz ez dagoalako besteak beste. Baina bestetik, egunkari-aldizkarietako testuak arin lausotzen dira irakurleen begietatik; ez berez galkorrak diralako, ezpada eurotan idatziak, behin momentuan irakurri ezkero, irakurleentzat aldenduago eta ezezagunago bihurtzen diralako baino, eta hainbat gehiago kasu honetan, gudu odoltsu bat eta guduoste ilun luze ermu bat tartean dagozala.

Lauaxetak, literatura alor horretan, poesiaz ganera, antzerkia eta ipuina be landu zituan, eta idatzietarik ugarienak kazetarilanek osotzen dabenak dira. Halanda ze, berbalauz –edo hizlauz–, berariaz kazetari lez agertu eban burua, hori zalako bere bizibide nagusia, kazetaritza. *Euzkadi* egunkarian egiten eban lan, politika arloan be buru-belarri sarturik egon zan arren. Eusko Alderdiak izan eban mitinlari garrantzitsuenetarikoa izan zan 30eko hamarkadan.

Baina *Idatz & Mintz*-en orriotara idazle eta literato dan ginoan dakargu, ez bere politika-zereginakaitik, ezta kazetari lez jorratu eban arlo zabalagaitik. Eta barruti horretan, olerkiari barik ipuingintzari emongo deutsagu oraingoan txandea, ganetik baino ez bada be.

Amaitu hurren dagoan 2005eko urte honetan zehar Lauaxetaren inguruan hainbeste ekitaldi izan dira Bizkai partean, beraren jaiotzaren mendeurrena ospatzeko; batez be Mungian –jaioterria ez izanagaitik, familiagaz batera hara joan zalako biziten hondino seina zala, eta horrezaz ganera Mungia dalako Laukiniz (bertakoek Laukiz edo Laukizandi deritxoen) jaioterriaren eskualde-burua–, baina baita Bilbon eta beste leku batzuetan be: antzezsaioak, erakusketak, kantaldiak, poesia errezitaldiak, liburu-aurkezpenak eta hainbat holako.

Labayru Ikastegiak be gorazarre-urte honegaz bat egin gura izan dau, Lauaxetaren kazeta-lan hautuez osoturiko bilduma-liburu bat argitaratuaz, eta guk be aldizkari honen orrietatik bat egin gura dogu, laukiztar idazle gazteak ipuingin lez erakutsi eban doaia goratuz.

Jon Kortazar adiskideak aspaldi ezagutzera emon zituan *Azalpenak 1931-1935* izenburutzat daroan eta Labayru Ikastegiak "Sutondoan" bilduman 1982an argitaratu eban liburuan, Lauaxetak *Euzkadi* egunkarian onduriko hainbat idazlan, eta liburua osotzen eben hiru atalen artean ipuinena zan lehenengoa eta garrantzitsuena, beste arlo biak literaturaren ganeko gogoeta-kritikek eta askotariko gizarte eta kultura gaien ganeko kronika eta eretxiek beteten ebela. Guk be geure ataltxoau Lauaxetaren ipuingintzari eskaini nahi deutsagu, nahita haren olerkigintzaren neurrikoa ez dana aurretiaz jakin; halanda be, Lauaxetak merezi dau lekutxoa euskal ipuingintzaren barruan, eta errazoi gehiagoz Bizkaikoan.

Kirikiñok arterago egunkari berorren orrietan landu izan eban generoa da herri-ipuinena. Haetarikoen hautu bat eginez argitaratu eban *Abarrak* liburua. Eta Kirikiño hil ondoren, bere idazlanetatik hondino bigarren bilduma hautu bat osotu eben bere adiskideek: *Bigarrengo abarrak*. Kirikiñok ipuin barregarrion bidez eta ostean be bere estilo umoretsuari esker, hainbeste irakurle euskaldun inguratu zituan egunkarira. Izan be, Bizkai aldeko irakurle euskaldun askok, haren idazkera atsegina, arina eta gatzez beterikoa ezer baino gurago eben.

Bide horri jarraitu gura izan eutsan Lauaxetak be. Eta Kirikiñok eta haren loba Mañarikok aina ipuin idatzi ez bazituan be, bai liburutxo bati gorputz emoteko bestean.

Urten barri dagoan Lauaxetaren kazetari-lanen bilduma barria, *Gure aberriaren elea* izenburutzat dauena atxakiatzat harturik, harako hautu diran ipuinetariko hiru hartu ditugu aldizkarionen orrietarako.

Idazte-estiloaz berba bi

Kazeta-lanetan argiro darakusku behin baino sarriago ze muetatako idazlea dan bera, eta konplexu gitxigaz dinosku zetan datorren bat eta zetan ez beste idazle eta eskola batzukaz. Euskerak, bere ustez, askotariko estiloak landu behar ditu, aberri-hizkuntza eta kultura-hizkuntza izatera helduko bada. Baina euskal hizkuntzak ez dau nahikoa estilo erraz herrikoia lantzeaz, batzuek gura leukien moduan; landua, jasoa eta elaborazino maila gorakoa be behar ditu, beste hizkuntza batzuek jadetsi daben lez. Goi literaturan egon nahi dauen idazle batek, gogoeta jasoak darabiltzan idazleak, hizkera be jasoa behar dau, nahiz irakurle zehe askori zailegia begitandu. Abertzale oso-osokoa dan aldetik, eta euskerea dan ezkero aberriaren zutabe nagusia, hizkuntza eta kulturaren alde diharduen jokabide diferente guztiei egingo deutse jera ona, guztiak aintzat hartuko ditu, euskal aberriaren mesedetan diran ezkero.

Lauaxetak bere burua, dana dala, ez dau kokatuko, Ariztimuñok-eta Donostialdetik bultzatzen eben literaturgintza herrizale horren barruan, ez herri-literatura (bertsolaritza eta beste) beste generoen aurretik ipini gura dabenen artean. Idazle kultotzat dauka bere burua, eta kultura kontuetan ilustratu-joerako eretxiduna da: herriarentzat lan egin, baina elite gisa. Ez da horretan dudarik: Lauaxetak gizarte abertzale

eta euskaltzale horren elitekotzat dau bere burua. Jesuitekin beregandu eban heziketa trinko eta aberatsa dala medio, jakintzazimendu sendo baten jabe da, horren jakitun dago bera, eta geroz indartsuago doan Euskadi barri horren zerbitzutan ipini gura dau bere jakituria eta adorea.

Eliteko gizon sentitze horretan datza, besteak beste, literato lez poesiari lehentasuna emon izana. Eta horretan datza era berean, poesian hizkera zailago eta jasoago bat ontzeko ahalegina bere. Beren-beregi harturiko jarrerea da. Hainbeste aditzen forma trinkoak zergaitik dira ugariagoak hitz neurtuz hizlauz baino? Edota darabilen hiztegia, edo adierazpideak, zegaitik dira ulergatxagoak poesian? Sintaxia be zegaitik bihurriagoa? Halan bada, Lauaxetak, literatura eihotean, gogoeta jasoak ezeze, hizkera gorena sortzen saiatzen da.

Hizkera lauaren alde

Hizkera-kontuan sartuak garan ezkero, hizlauzko eremura gatozan. Kazetaritzan, ipuingintzan, antzerkian darabilen hizkera, aranatar idazleen ohiko grafia eta fonetika konplexu samar horrek sortzen dituen urruntasuna eta gaxtasuna kendu ezkero –itxurazko urruntasuna, azken baten, baina–, ulerterraza eta laua da, orohar, zertzelada gitxi batzuk aparte itxi ezkero.

Aranatarren neologismo edo hitz itxurabarrituek iluntzen dabe apur bat hizkera. Darabilen sintaxia be, hitzen ordena, batzuetan ez da guztiz naturala; ez dator hiztunon erabilera nagusiakaz bat. Batzuetan gurata egiten ete dituan gagoz sintaxi-aldaketok, baina ez beti seguruenik.

Nahiz eta bere jatorrizko bizkai euskera erabili idazteko –artean batasun-ahaleginak zolitu barik egozan hondino, Azkueren gipuzkera osotuaren ahalegina gorabehera–, Lauaxetaren hizkera ez dator guztiz bat, ezta antzik be, hiztunen berez-berezko herri-hizkera horregaz. Estilo berezia da berarena. Aranatarren estilo barritzaile horren gogaide dan aldetik, darabilen hizkera be zelanbait 'urratzaile' edo 'barritzaile' dala esan daiteke, eta edozelan be, Kirikiño edo Mañarikorena baino gatxagoa ulertzeko.

Hizlauz darabilen hizkera ez da, gure ustez, Kirikiño edo Zamarripa baten idazkera ziurra eta umotua. Bere testuak irakurri ahala, pasarte batzuetan igarten jako euskerea hondino behar dan ginoan ondu barik daukala. Ez da ahaztu behar oso gaztea zala artean; hogeta zazpi-zortzi urtegaz diharduela kazetaritzan, eta ikasketak egin zituan denpora luze guztian euskera askorik ez ebala landuko kontuizu.

Aranatar gramatikariei jaramon gehiegitxo egin izanari be zor jako batzuetan bere hizkeraren bitxitasuna: gaztea eta aranazale sutsua zan aldetik, fede osoa emoten deutse harek finkatutako fonetika eta morfologia-legeei. Gaztea dalako edo beharbada, ez deutse behar besteko federik emoten hiztun petoen erabilerei. Horri zor jako, beste askok lez, Lauaxetak be aintzat hartu izana aldiko idazle aranatar batzuetan indarrean ziran eta zabal ebilzan 'desbide' batzuk, morfologiako zein sintaxikoak. Euskera ondo menderatzen ebana ezin da zalantzan ipini, ze jatorriz, familiaz eta herriz euskaldun osoa izateaz ganera, politikan sartu ondoren herririk herri mitinik mitin dabilenean be euskera ugari erabiliko eban nonbaiten be, eta erraz susma daiteke herriherriko euskaldun onakaz berba-jardun ugariak eukiteko beste inok ez lako erea

izango ebala. Hau ez da, dana dala, zehaztasunetan sartzeko lekua, eta begoz hurrengo baterako sakonago aztertzeko.

Halanda be, kazeta-mailan erabili beharreko hizkerea lautu edo erraztu beharra dagoan kontzientzia badauka. Izan be, ordurako salatzen hasiak ziran aranatarren gehiegikeriak euskaltzale batzuen aldetik. Mokoroak, Altubek, Azkuek eta bestek ez eben honezkero begi onez ikusten joera hori, batez be euskal hiztun soilakandik gehiegi urrundu zalako. Lauaxetak be badirudi, maisua eta maisuaren jarraitzaileak kritikatu barik baina, premina hori sentidu ebala, eta horren alde be mintzo da batzuetan.

Kontalari bikaina

Idatzi zituan ipuinak irakurri ahala ohartzen gara, istorio edo pasadizuak kontatzen trebatua dala. Idazle ikasiaren dohaia ezagun dau edonondik. Kontaeraren haria maisutasunez garatzen daki, dialogo bizi eta berezkotasun handikoak sortzen trebea dogu, eta deskripzinoak egiten be parebakoa.

Gaixotasun-egoera bat honetara garantzen deusku, kasurako, "Buruko mina" izeneko ipuinean (*Azalp* 40):

> "Nireak egin dau. Jakan nabil, iztarrok joan ezinik, eskuak luzatu jataz, begiak zorroztu, matrailak zurbildu, ezpanak zuritu, bularrak txikitu, uleak jausi, eta soin guztia ahuldu, hotzitu, argaldu eta ezereztu"

Umore nasaia darie, bestetik, bere ipuin barregarriei. Haren poesia irakurrieran eukan idazle serio eta grabearen antza guztiz aldatzen da bere ipuinetan barrena sartzen garanean. Ipuinetariko edozeinek darakus probarik asko honetan.

Hemen ipini ditugun lako ipuin barregarri edo umoretsuak hainbat idatzi zituan; baina bere asmoa, ipuinon ondu edo egokitzean, ez da goi literatura lantzea, jakina; idatzi erraz erakargarrien bidez irakurle euskaldunak gehiagotzea baino. Egunkarian idazten ditu, *Euzkadi*-n, irakurle zeheentzat, eskola handi bako irakurle euskaldunak begipean dituala. Gizarte-gune horri erantzutera behartua dago kazetari euskaldun lez. Kontuan hartu daigun, Zamarripak esaterako, lehiakide zan *La Gaceta* egunkarian beste horrenbeste egiten ebala; eta *Euzkadi*-n bertan Mañariko, Uribitarte'tar Ibon eta beste hainbat ebilzala ahalegin beretsua egiten. Lauaxetak be eupada horri erantzutea beste biderik ez eban; hainbat gehiago, euskalzaletasuna eta abertzaletasuna bultzatu nahi baziran.

Idazkera gaurkotua

Lauaxetari idazle lez jagokon mailea hurrengo belaunaldietan jagoteko, gure ustez ez dago bide hobarik, aldiko idazkerak gaurkora ekartea baino. Ez dinot guztiz, baina bai gaurko irakurleak eroso irakurteko bestean.

Dakuskuzan, bada, ipuin-testuok gaurko bizkaiera arautuan, edo erdi arautu baten sikeran. Filologo askok horretan dakuskeen saldukeriaren zorra, ea irakurleei egiten deutsegun mesedeaz ordaintzen dogun.

Grafiaz ostean, fonetika eta morfologia puntu batzuk be gaurko eran eskeini dira. Orohar, alkarren ondoko bokalen itxidurak lehengora ekarri ditugu: *ia* > *ea*, *ija* > *ia*, e.a. Adizkiak be gaurko bizkaiera arautura erakarri ditugu: *eukozan* > *eukazan*. Hitz batzuen itxureaz be bardin jokatu dogu, berariaz aranatarrek bultzaturiko baina gerora arrakastarik irabazi ez daben hitz-itxuren kasuan.

1. testua
Ipuin barregarriak

Irakurle errimea

Bizkaiko uritxu hau mendi artean dago. Berein basetxe ikusten dira; bakotxak muino ta hegi-magaletan solo zabalak estu dauz.

Usobaltz basetxeak be, lurralde joriak eukazan. Goiko aldetik oihan edo baso itzela, enbor lodidun pagoak eta haretxak. Beheko aldean, ostera, lur landuak, alorrak. Muna ertzetan baziran ohidalako mahatsondoak be. Eta solo arteko bidezidorrak! Gariak loran egozan, bai? Eta kerexak, odola bera baino gorriago. Sanpedro sagarrak, matrail gorri, sanjuan madariak, ostera, hori-hori. Etxe inguru haxe baizan zoragarria!

Bakezko bide hareetatik goruntz nonor joian. Nor ete zan? Ene bada ta, herriko telefonistea!

Gure *Zazpi hanka* artegatu zan, barri txarren bat ekarriko ete eutsan be. Bedar sikuai bueltea emoten ebilen eta, itxi bertan bere eskuberea ta bideruntz urten eutsan telefonisteari.

–Eta zer dakarzu ba? Berorik bere ez, berorik?

–Jesus mila bidar! Lekutan bizi zarie, gero! Ezin zeinkiez etxe honeek hor beheko trokara ekarri? Aldats honeek igoteko be, arnasa txarra ez da euki behar. Heldu nazanean, heldu!

–Tira, sartu zaite etxe barrura, txakolin apur bat be badaukagu ta.

–Txakolina dinaustazu, txakolina? Prisa galanta daukat, lapikoa be sutondoan itxi dot eta! Gure gizona datorreneko dana prest euki behar izaten da, bai?, eta arin-arinka banoatzu. Hamen dakartzut telefonema bat. Ez dakit zer dan.

–Bueno! Hor daukagun kriadu edo morroi gazteak leiduten badaki ta harexek esango deust zer barri dakarren.

–Agur, ba, Martolo.

Geure telefonistea, baserritar edo aldeana hutsa zan. Leiduten baekiala batzuk inoen. Besteak, ostera, haren alaba bat zala telefonoko gauzak eroaten ebazana. Amak kobrau bai, baina besterik ez ebala egiten.

Geure ustez Mikela-Petrak ez ekian leiduten, bestela esango eutsan Martolo edo *Zazpi hanka*ri ze barri etorren telefoneman.

Dana dala, geure *Zazpi hanka* zer egin ez ekiala geratu zan. Papeltxu urdin harek ze barrabaskeri ete ekarren ba? Sorginkeriak dira, gero, holako gauzak! Errekaduak hobeto ez ete dira bidalduten mutil bategaz edo?

Behiak zainduten egoan Patxitxuri dei egin eutsan:

–Hi, Patxitxu, etorri hadi hona! Hauxe leidu behar deustak.

–Zer da, ba, zer? Ene, hori telefonemea da! Eskolara ibili nintzanean holako bat ikusi neutsan Don Kazinto abade jaunari. Ama hil jakonean heldu jakon.

–Zer dinostak? Ama hil jakonean honen antzeko papeltxua bidaldu eutsela?

–Bai, ba! Nonor hilten danean errekadua emoteko ei dira…

–Zentaila-zentailea! Ez dok izango egia! Nor barrabas hil ete jat neuri?

–Neuk leiduko deutsut.

–Tirok, ba! Hartuik.

Geure Patxitxu, mutil errimea zan. Hamaika urte baino ez eukazan, baina alargunaren semea zan ezkero, kriadu

parau zan. Ogia irabazteko zeozer egin behar, ba! Eskolara nonoz ibilia zan, gauza handirik ez ekian arren.

Esku artean hartu papeltxu urdina, ta zabaldu eban. Letra iluna eukan. Zortzi bidar begiratu eutsan gaixoak. Ezin leidu zer zan!

–Ezer txarrik jagok ala? Leidu egik mutil, leidu!

–Bai, oraintxe –eta hasi zan irakurten. Erderaz idatzita egoan telefonema hori. A cura mañana, a la una, confesión Margarita.

–Zer dok hori, mutil? Konpesetan bihar joateko?

–Bai, hauxe dino. "A cura mañana a la una confesión. Margarita". Hemen horixe dino.

–Ez jakiat ba! Nok barrabas bidaldu jaustak hori?

Patxitxu gaixoak zortzi bidar leidu eutsan telefonemea, baina beti bardin. Argi ta garbi egoan "A cura mañana a la una confesión. Margarita."

–Tirok, ba! Ondo jagok eta.

Geure *Zazpi hanka* preparau zan hurrengo egunean. Jantzirik onenak atara kaxatik eta urten zan. Andrea ikaratuta egoan. Gure gizonari konpesetan joateko nork agindu ete deutso gero! Aitearenka ebilan. Tripili-trapala hor doa geure gizona eleizara.

Herri haretako eleizea mendi goitxu baten dago. Haren antzekorik ez dago Bizkaian. Basetxe bat dala dirudi. Ondoan zelaitxu txukuna dauka. Aurrez aurre, ostera, kipres batzuk. Ortusantua-edo hantxe egongo zan antxina ta.

Eleiz ondotik ohidalako ikuskizuna dago. Han, behe aldean, kaminoa eta errekea. Trabiba be ibilten da.

Zigarro-kondoa jaurti eleizako atetan, bai?, eta txapela kendu eban Martolo jaioak. Ur bedeinkatuaz atzamar-puntak busti ostean "Aitearen" egin eta sartu zan.

Eleizan ez zan inor. Isiltasuna. Haxe zan bake gozoa! Berorik bere ez! Altara nagosi aurrean argiontzia egoan. Andra Mariaren altarea lorakaz.

–Non ete jagozak abadeok, ba! –kolkorako inoan *Zazpi hanka*k.

Atzeko jarleku baten jesarri zan eta ia ordu bete pasau jakon. Logurea be sartu jakon. Kanpantorreko erloju zaharrean ordu biak jo eben.

–Hirurak arte egongo nok; abadeari ahaztu egingo jakon eta.

Baina hirurak izan ziranean be abaderik ez zan etorri. Siestea botaten egoan geure parroko ona. Martolo gizajoak zeozer errezau eban eta hasarre antzean aldendu zan. Eleiz ondoan inor ez. Oilo batzuk kerizpetan etxunda. Ha zan beroa! Tripili-trapala etxeratu zan, izerdi galanta bota ostean. Etxean sartu zaneko andreak itaundu eutsan:

–Eta zer? Konpesau zara?

–Ze konpesau ta kopla! Ordu luze bi hantxe egon naz, baina inor ez da etorri. Gogait eginda etorri naz.

–Zaran kokoloa! Hantxe egon behar zenduan! Beharbada Jaungoikoaren deia izango zan. Konpesautera dei egin deutsunean zeozegaitik izango zan.

–Tira, itxi egion horri bakean. Banoa bedar sikuai bueltatxu bat emoten.

Hurrengo egunean, domekea be bazalata, gure Martolo herrira jatsi zan. Hamarretako mezea entzun nahi eban, baina lehenago kopatxu bat anisadu hartu behar ebalakoan trabenara sartu zan.

Trabena haretan telefonoa egoan. Agertu zaneko Mikela-Petrak oihu egin eutsan:

–Eta atzo non egon zinan, ba? Zure burua! Zeure begira hementxe egon nintzan.

–Ba, beste gauza batzuk egin beharra neukan eta…

–Ez neutsun telefonemea eroan, ba, ordubatetan honaxe etorteko?

–Zeer? Hona etorteko? Ez horixe! Telefonemeak hauxe inoan: "A cura mañana a la una confesión. Margarita".

–A astokilo handia! Hori inoala. Oraintxe esango deutsut.

Hau esanaz batera, Mikela-Petrak dei egin eutsan bere alabeari:

–Zu, Mari, atzoko telefonemeak zer inoan?

–Zer esango eban, ba! –erantzun eutsen neskato zuhurrak–. Hauxe: "Acuda mañana, a la una, a conferencia. Margarita". Miraballesen daukazun arrebearena zan, zeugaz konferentzi bat euki gura ebalako.

Zazpi hanka konturatu zanean, hango barre-zantzoak entzun ziran baita Gorbeian bertan be. Halakorik! Konferentzira joan beharrean, konfesatera ez zan joan ba! Arranotan! Ondo leiduten ekian morroi gizajoak!

LAUAXETA
Euzkadi 6733, 1934-7-8

2. testua
Larunbatetako Ipuinak

Katuaren enterrua

Katua hil jakon geure neskazaharrari. Holako piztitxu baten heriotzeak ezin izan lei leba handirik, baina Maiton neskazaharra negarrez urtu zan. Bere bizitza luzean beste adiskiderik ez eban euki.

Gaztetan polit-polita ei zan, baina ezkonge geratu zan; ludiko gauzak holakoxeak dira ta. Itsasontzi bateko buru zanagaz paseotxu batzuk egin ebazan Volantin egurastokitik. Gero ezer ez; itsasontzia joan zalako. Hainbat eguneko negarra euki eban, baina azkenean ahaztu jakon.

Correo txaideko bere etxean bizi zan. Eta bizitza bakartia bizitza ituna dalako, katu bat ekarri eban. Bizar luze-luzea zan eta sagurik ez eban atrapauko sekulan. Maitoni begiko egin jakon. Bere behe ondoan egin eutsan oherik bigunena. Eta negua zanean brokin ondoan lo eragiten eutsan.

Seme bat baleu lez maite eban. Eta jan zer gero, jan! Edozelako janariak ez eutsazan emoten, janari meheak baino.

Semerik ez senarrik ez daukan neskazaharrak, katua maite behar, ba. Baina beti-

koak ez gara geu, geu be, ta abereak gitxiago. Guztioi heriotzea jatorku.

Maitonen negarrak negar biziak ziran, eri txarrak katua eroan eutsalako. Zaharren zaharrez narraz ebilen eta areto nagusitik sueteko berotasuneraino be ezin joan izaten zan. Bizar luzeak jausi jakozan eta narruko uleak be zehaztu jakozan. Harek eukan itxurea!

Katuaren bizitzea zala-ta, otoi handiak egin eroiazan geure Maiton zaharrak, baina Balbea sartu zanean katua eroan eban.

"Ai nire katutxu pintoa, neure bizitzapoza, neure egun tristeen argia, neure bakartaldien izarra!" eta holako handiak inoazan neskazahar gaixoak. Correo txaideko etxe ederrean, negar galantak entzun ziran. Egurastuten ebiltzanak, ikaratuta geratzen ziran. "Zer jazoten dok hor, gero?".

Maintonek bere antzeko adiskide bat eukan; neskazaharra haxe be. Ezkonduteko ei egoan, baina geixo hil jakon senargaia. Lantzean behin biok batzen ziran euren nekeak eta saminak edestuteko asmoz.

Katutxuaren heriotz egunean heldu zan Maripe. Lagunaren negarrak entzun ebazanean, berak be negarrari eragoion.

–Eta orain zer egingo dozu, ba? Katua hobiratu behar da!

–Ez neuk! Holakorik neuk ez neuke egingo, neuk. Katu zoragarri hau ezin lurperatu geinke.

–Etxean be ezin gorde zeinke ba! Ustelhatsaz beteko jatzu bizitokia.

–Zer egingo dogu, ba? Hau zoritxarra! Neu hil banintzan, neu!

–Erre egin daigun, erre!

–Ez horixe! Hara, asmo bat bururatu jat, otu jat. Paketetxu baten bildu ta eroan egizu. Ibaizabalera jaurti zeinke. Urak eroan dagiala bere altzoan. Holako katutxu maitagarri batentzat leku hoberik ez dago. Ganera itsaso zabaleraino joango da. Han arrainak jango dabe, ta kitu!

Mariperi ez jakon txar irudi bere adiskidearen hitza. Bien artean egin eben paketetxua, ingi zuriz hogei toles egin eutsena, bai?, eta sedazko lokarri bategaz lotu eben.

Hondartza edo Arenal ondora heldu zan Maripe, paketetxua eskuan ebala. Baina zelan jaurti? Ertzainak ikusten ziran alde guztietan. Deustoko Ikastola Nagosiraino be heldu zan, baina alperrik. Hantxe be ertzainak ziran. Zer egin ez ekian. Ibaira jaurtitea baino errezagoa zan edozer. Holako baten barriro ganean itxi eban bere pakete dotorea. Aldendu ez zan aldendu, deadarka nun jatorkon ertzain bat:

–Emakumeorrek, hau ahaztuta itxi dozu, ezta?

Maripek eskerrak emon eutsazan eta eskupekotxu bat, hain ertzain ona zanari. Zer egin ez ekian. Holako baten Ondarreta edo Getxoko bultzia hartu, bai? eta itsasoraino joatea otu jakon. Esan baino lehenago egin eban.

Bultzian sartu zanean, mila paketetxugaz joaten dan errekadista baten ondoan jesarri zan. Jatsi zan Ondarretan, eta paketetxua hartu bere bai. Itsas ondora joan zan. Anei gizon eta emakume ikusi ebazan hondartzan. Igeri ebiltzan.

Zer egin? Bilbaon bertan baino gatxago zan paketea uretara jaurtitea. Buruko minaz Bilbaoratu zan. Correo txaidean sartu zan bere paketeaz.

–Ai Mainton adiskide ona! Ibaira ezin jaurti izan dot. Hauxe ta hauxe jazo jat. Zer egingo dogu?

–Hara, ba, sua biztu edo ixotu daigun. Baina surik ederrena. Usainezko sua ta hantxe erreko dogu. Katuaren azkena halangoxea izango da!

Neskazaharrok biztu eben surik ederrena. Kolonia-ura bota eben eta garrak dirdirka ziranean, hartu paketetxua ta zabaldu eben. Zer zan ha? Katua ez eban bildu ba? Katua ordez, urdaiazpiko ederrena bilatu eben!

Euren ikerea galanta izan zan eta irribarreka alkarri inotsen: "Zer esango ete dau katutxu hila aurkitu dauenak?" Laster beste katutxu bat ekarriko ei dau geure Maintonek! Correo txaidean dan ezkero, jakingo dogu.

LAUAXETA
Euzkadi 6386, 1933-5-27

3. testua

Osagile onena

–Agur, osagileorri. Geixoak narabil aspaldion, bai?, eta osagai bila nator.

–Eskertuten zaitut neugan holako itxaropena daukazulako. Ez zara damu izango laster ba, osatuko zaitut eta.

–Neure bizitzako egunetan geixorik euki bako gizona naz. Orain, barriz, urdailak ez deust bakerik emoten.

–Urdailetik txarto, ezta? Ez larririk. Urlia jaun ospatsua dozu urdaileko gatxen osalari onena. Harengana joateko emongo deutsut txartel bat; neure aginduz zoazala erakutsi egiozu ta laster zeure gatxa kendua izango da.

–Baina, ene osagile jaunori, urdaila ezeze, oinetatik be ez nabil ondoegi. Sarri jausten naz, oinak ahulduta-edo daukadazalako.

–Ez bildurrik. Horrentzat be aurkituko dot osagile ona. Berendiagana joan zaite. Halakoxe osagilerik ez dago inguruetan. Bai ona dala gero!

–Poztuten naz neure gatx honeentzat osagileak aurkituten dodazalako. Baina neure geixo honeek ez daukie amairik.

–Besterik badozu? Geixo gehiago daukazu?

–Bai, oindino gehiagorik badaukat. Geixoak oratu nabe, bai?, eta txarto nabil.

–Zer dozu, ba?

–Hemen eskuturrean baltzitu bat daukat. Ez dakit zelan sortu jatan.

–Ez da gauza handirik. Sandiagana zoaz ta harexek osatuko zaitu.

–Osalari ona da, ezta?

–Eta ganera neure adiskidea.

–Zeure adiskidea da? Ondotxu dago! Zeure adiskidea!

–Gehiagorik badozu?

–Osagile, adiskide gehiagorik badaukazu?

–Hori itauna!

–Ez txarra bere! Zeuk adiskide gehiago badozuz ta osagileak badira, neuk gero gehiago eukiko dodaz-edo.

AGUA, Lauro del: *Lauaxeta*

–Zer dozu, ba?

–Buruko minak. Sarri burua galduten jat.

–Horixe benetan geixo txarra! Edozein osagilegana ezin bidalduko zaitut.

–Ez, burua ezin itxi neike edozeinen eskuetan.

–Ez, osagilerik onenagana joango zara. Harexek arakatuko deutsu burua. Behar bada garaunak atarako deutsuz, baina ez bildurrik izan.

–Bildurrik ez daukat! Garaunak kenduten badeustez bere, zer jazoko jat, ba? Hil? Eta hiltea ete da gauza harrigarria? Bai zera! Osagile horrengana joango naz. Ederto neugaz portau zara!

–Eskerrik asko.

–Orain zer ordaindu behar deutsudan esan egistazu.

–Berrogeta hamar laurleko.

–Gehiago ez? Uste neban gehiago izango zala. Baina esan egista [zer egin dozun] hori kobretako?

–Zelako geixoak daukazuzan esan deutsut, eta ganera norengana joan [behar dozun] bere azaldu deutsut. Nahiko ezta?

–Bai. Ganera osagile horreek onenak dira! Zeure adiskideak!

–Neure adiskideak!

–Itaun bat, jauna: Osagilea zara, ezta? Baina ze mueta edo klasetako osagilea zara, ba?

–Geixo guztietariko osagilea naiatzu. Zeuri serbitzeko geixo guztietarikoetan ikasia naz.

–Agur, jaun argiori! Osatu deustazu sakela behintzat!

–Agur! Badakizu nortzukana joan behar zaran. Hareek gehiago kenduko deutsue. Baina ez bildurrik!

LAUAXETA
Euzkadi 6161, 1932-9-4

ALVARO RABELLI

Odisea

Fernandok ez eban gorputza sentitan, osasuntsu egoan seinalea. Ibilteko ahalegina be ez eban egin behar, haizeak eroan eta. Burdina okerren artetik zutundu eta aldendu egin zan. Kamioietan uluka hurbiltzen ziran su-amatatzaileekana jo eban azalpenen bat emoteko edo. Momentuko erreakzinoa zan, beste gauza bat egin eikean, bere buruaz arduratu edo besteei lagundu, esaterako. Baina ez, egoerak azalpena behar ebala firme eretxita egoan, norbaiti gertatutakoa kontetako irrika agerikoa. Alabaina, su-amatatzaileak iristean, ez eutsen jaramonik egin, arin baten igaro ziran ondotik sugarretan egozan hondakinetan zauriturik ete egoan miatzera. Danak egozan hilda, dandanak, baita Fernandoren ondoan bidaia egina eban krema koloreko jertsedun emakumea be, atsegina eretxi eutsan ha. Emoten eban inor ez zala haren egoeraz arduratuko, nahaste handiegia egoala pentsau eban eta gehiagorako barik Fernandok oratu eutsan eskuzorroari, laneko zirriborro eta beste paper batzukaz ordu bi lehenago autobusera igon ebana. Asteak ziran autorik ez ebala, horregaitik, iluntzean, lanetik bueltan autobusa hartu behar izaten eban. Kale ilunetara jo eban, artean gogor eragoion euripean, eta bertan nahita galdu zan, txoro-txoro. Euri tantek burutik behera melatzen eben, potxingo txikiak egiten jakozan justu bekainen gainean, baina Fernandori bardin eutsan, horreek be ez ebazan sentitan. Egia esan, aspaldi ez zan hain ondo sentitan, gorputz eta gogo astunetik erabat aske, poztasun irrazionala erion. Egingo eban hormetatik gora be ibilteko gauza zala. Ilaun hutsa zan. Noiz edo noiz zaborra batzeko kamioiren batek urratzen eban Fernandoren ibilera bakartia, orduan langileak une batez adi gelditzen ziran sirenotsei, gero eta urrunago entzuten ziran sirenotsa ahulei, ez ordea Fernandori, nahiz eta gertatu barri zana kontetea gustauko jakon, pozik kontau be. Emazteari kontauko eutsan lez. Ordu horretako kale abandonatuen garbitzaileentzat eta txakur deslaientzat Fernando itzal perfektu baten hutsegitea baino ez zan, igarrezina, ezin gogoratuzko amets urrun bat. Luze barik gau zarratua abaildu jakon eta beragaz bat larridura erne, aurresentipen bat. Etxeratzeko ordua zan, emaztea larri egongo zan berandutzen zalako, edo beharbada albistegian gertatutakoa entzunda eukalako, joan behar eban. Fernandok kale ilun eta bakartien barrena jarraitu eban, bere urratsek oihartzuna egiten eben ateri barri zan gaugiroan, espaloiaren umeltasunean. Bihotzaren taupadak, barriz, ez ebazan aditzen eta erantzuna behar eban ezinegona bere baitan handituz joakon. Lehenengo biderrez ikaratu zan. Hainbat kale kantoi aurrerago eskeko bat ageri zan bazter baten hanken artean eukan paper txirlorazko su ñimiño bati birika alkoholikoz auspoa egiten. Beste arima errari bat. Fernandok harengana jo eban lehengo poztasun txoroa errekuperauta. Behintzat harek entzungo eutsan, seguru.

–Lagun! Lagun! Ez dozu sinestuko, baina jaso jatana…

Eskekoak ez eban zirkinik egin arrotz ha bat-batean hurbilduta, aitzitik, putz egiten segidu eban. Fernando kokoriko parau zan aurrez aurre, ia suaren gainean:

–Emaztearengana noa, hemendik hur bizi gara, honezkero kezkatuta egongo da, jakin behar dau gertatu jatana, ez dozuz anbulantziak eta suhiltzaileak ikusi? Ikaragarria izan da, jente ha guztia eta ni… odola baino ez errepidean, entzuten deustazu, lagun?

Eskekoa bere horretan egoan.

–Bai, banoa, kontau behar deutsat, nire zain dago, nire zain, emaztea izatea gauza ona da, beharbada zuk ez dozu… beti izan natxako fidela, beti, horregaitik maite nau, beno, behin izan ezik, ze…

Eskekoak jagiteko keinua egin eban eta une batez aiko-maiko ibili ostean, gorputza zabuka ebala, korroskada bota eta barriro be jausi zan inguruan eukazan ardo merkearen botila hutsetara. Lozorroan lotu zan. Fernandok etsi eban eta burumakur aldendu zan. Hurbil egoan. Izkinara jo eta bere etxeko ganbarako argia iziotuta ikusi eban. Zeinen ondo! Behingoan etxean, bere Itakan, azkenean norbaiti kontauko eutsan odisea. Sartu aurretik ondoko etxeko gortinan bere bi auzokideen itzalak begiztau ebazan, atsoagureak ziran. Betiko maratilari eragiten egozan! Fernandok barre egin eban. Zaharren semeak, medikuak, egundoko dirutza eginda eukan, ezkontzeko egoan hogei urte gazteagoa zan neskatxa bategaz. Abadeak emaztetzat hartzen eban galdetu eutsanean, baietz erantzun eban, orduan bihotza irauli jakon. Ezkonduta edo ezkongabe hila zan? Ondareak, zahar gizagaixoentzat ala alarguntsa barriarentzat? Fernando, ardura hori gogoan erabilela, sartu zan etxera. Nekez eusten eutsan irribarre kezkati bati. Emaztea bertan egoan, erdi ilunpean, egongelako narruzko besaulkian negurako tapauka bat trikotatzen. Ez eban agurtu, begiratu be ez eutsan egin. Behintzat musu emoten jagi izan balitz, ze lehen beti musu emoten eutsan etxeratzen zanean. Fernando urduri ebilen hara hona, etengabe astintzen ebazan eskuak eta emozinoaz berbak harilkatzen ahalegintzen zan.

–Badakizu zer gertatu jatan lanetik nentorrela? Istripua, istripua euki dogu! Autobusa irauli da, euri handia zan une horretan, eta jo dogu zubi baten zutoiaren kontra, orduan sugarrak hasi dira, gorpu horreek guztiak errepidean barreiatuta, eta emakume ha hilda nire gainean... Ez dozu ulertzen? Onik urten dot, bakarra, bakarra izan naz!

–Emazteak ez eban murtik be esan, lasai asko eragiten eutsen orratzei. Fernando, bitartean, egongelan zehar marmarka ebilen emaztearen arreta bereganatu nahian. Ezin, ordea. Emaztearen aurpegiera ez zan aldatzen, nekez susmatzen jakon keinurik, txikiena be ez. Fernando, halako baten, konturatu zan falta zala egongelako argazki guztietatik, azken urteetan udako oporretan alkarregaz egindako argazki guztietatik. Beste gizon bat ageri zan bere lekuan, ezezagun bat. Fernandori berben borbor jarioa plausta izoztu jakon.

–Zer gertatzen da hemen? Hori da, ezta? Hilda nago, istriputik ez dot onik urten. Esan behingoz hilda nagoala, arren!

–Baina, Fernando, zer dinozu? A ze ateraldi zoroa! Zu hemen ez zara bizi, aspaldi banatu ginan, akaso ahaztu dozu ala? Joan etxera beste bati zarata egiten, eta itxi baketan!

MATXALEN ANTXUSTEGI-ETXARTE

Ni? Nor ete?

Ile berdea, begi horiak eta ezpain zuriak ditut.
Ez da ez, nire txikitako argazkiek erakusten dutena.
Ez naiz ez, ingurukoek deskribatzen nindutenean ziotena.

Ile urdina, begi laranjak eta ezpain gorriak ditut.
Ez da ez, ispiluak goizean islatu duena.
Ez naiz ez, ingurukoek deskribatzen nautenean diotena.

Ile gorria, begi grisak eta ezpain arrosak ditut.
Ez da ez, nire argazki tximurtuek erakutsiko dutena.
Ez naiz ez, gogoratuko nautenek, gogoratzen banaute behintzat, deskribatuko dutena.

Atzo, gaur, bihar… ni, zu, bera…
Aurrez aurre gaudenean bata bestea ikusten dugu.
Ez da ez, isla bera.
Ez da ezta, guk nahi duguna.
Nik zu ikusten zaitut; eta zuk niri isla bat oparitu.
Bihar barriro gurutzatuko gara, agian.
Bihar barriro begiratuko diogu elkarri, agian.
Zuk ni ikusiko nauzu, eta nik zu isla berri batekin bersortu.

JON AREGO

Blas, Oterokoa

Etorri da Blas gugatik,
gugatik etorri da Blas,
halaxe ikusi dut Deustuko zubipean,
han, albo-alboan,
desagerturiko garabi eta gangil
uhertuen peskizan.

Etorri da Blas gugatik,
gugatik etorri da Blas,
eta ikusi gaitu, itsu-itsuan,
aurrerakuntza eta milurtekoaren
burutazioan.

Etorri da Blas gugatik,
gugatik etorri da Blas,
eta gizonarengatik galdetu du,
galdua omen, nonbait,
eman diote arrapostu.

Etorri da Blas gugatik,
gugatik etorri da Blas,
izendazioa, esan legez, Blas ekarri du,
deitura, aldiz, Oterokoa ezarri diogu.
Blas Oterokoa,
zorretan gatzaizkizu.

XABIER ZALBIDE

Antioju salbatzaileak

Istorio txiki hau kontatzeko unea bilatu zuenarentzat.

Umeak urrundik ikusi zituen bonbarderoak, aitarekin Askanara joan zenean udagoieneko zapatu arratsalde euritsu hartan. Hantxe aitak baso-behi batzuk zeuzkan, *montxino* klasekoak, basatiak, nabarrak eta okela urrikoak. Solte ibiltzen ziren menditik, baina noizean behin, eguraldi txarra zekarrenean batez ere, etxeko kortara eroan behar ziren, eta huraxe tokatu zen hain zuzen arratsalde euritsu horretan. Etxetik ere ikusten zen zelan lainoak mendietan itsatsita geratzen ziren, puska handitan, pinu eta haritzen arteko espazioa sutan balego bezala.

Laino puskatuen erruagatik, hasieran gaitza egin zitzaien aita eta biei zeruan zarata ateratzen zebilen horren forma ondo ikustea. Zarata, dena den, lehenengo unetik bertatik ederto heldu zitzaien belarrietara, ez zelako hura zarata apala, xumea, edozein abioi nimiñok ateratzen duena, hura doinu lodia zen, trinkoa, bonbardero batek baino ezin atera dezakeen burrunba borobila.

Mutikoak hegazkin bat ikusten zuen lehenengo aldia izan zen, baina jakin zuen berehala bonbarderoa zena, inork ezer esan barik, beste aukerarik ez zegoelako. Bonbarderoak ziren eta kito. Ez zuen ezer esan, mutu geratu zen, ezpainak loturik eta estuturik. Aita ere isilik geratu zen zerura begira harik eta zarata Eretzako puntaren atzean ezkutatu zen arte. Gero, ezkerreko eskuaz txapela tinkotu eta behien arrastoari jarraitzeko keinua egin zuen pinu artera sartuz, lasai-lasai, aita lasaia zelako. Txapelazpiko belarrien tamainako lasaitasuna zuela pentsatu zuen semeak. Zabala. Haren atzetik joan zen, sasi artean ostendu baino lehen..

Etxerakoan bustita zeharkatu zuten auzoko zubitxoa eta Bilboko kaminoa. Denak bere lekuan ematen zuen: kea zerien etxe batzuetako tximiniei, Keleto zaharra baserriko leihotik begira zebilen eta Benitori lokatza belaunetaraino iristen zitzaion. Dena bere lekuan zirudien. Normaltasun arraroa zen, ordea, izan ere, bonbarderoen zarata lodiak arrasto txiki bat utzia zuen bazterretan, eta herrian azkenaldian hainbestetan entzuna zuten "gerra" berbak beste esangura bat hartu baitzuen arrasto horren laguntzaz. Eguraldi txarra zegoen zapatu arratsaldea bizikletarekin atzeraaurreraka emateko, eta horrek mutikoa tristetu egin zuen. Praketako lokatzak ere antojua ematen zion: ez zuen batere gustuko arropak lohitzea. Behiengatik ez zegoen horren kezkaturik, euretariko bi Askanan galduta egoteak ez zion ardura handirik, egia esan, aita barrutik purrustadaka zebi-

lela igarri bazuen ere. Purrustada lasaiak, hori bai, aita lasaia baitzen. Semeak ezin zuen bonbarderoa burutik kendu.

Ama ahizpekin zegoen etxeko suetean zain, artega, etxeko bazterretan ere abioiek barreiatutako zarataren arrasto ilun bat zegoelako. Mutikoak, ostera, ez zion erreparatu eta bere burua ikusten zuen etengabe han goian pilotu antioju dotore batzuekin, mendi guztiak, herriak eta itsasoa ere menpean zituela. Imajinatzen zuen Ameriketaraino heltzen zela, hara itsasontzi potoloetan joan ziren herrikideak baino askoz ere arinago, eta gero bueltan zetorrela eta herriko plazan lur hartzen zuela jendearen algaren artean... Bizikletan ibiltzearekin konformatu behar zuen, ostera, eta zapatu horretan ezta hori ere, halako eguraldi makurrarekin amak plazara joaten uzten ez ziolako. Etxean geratu behar izan zuen, kortako biztanle berriei jatekoa ematen, eta ondoren denbora pasatzen, abioi imajinarioekin olgetan.

Hurrengo asteetan, apurka-apurka, hegazkinak utzitako arrastoa garbituz joan zen, alde batetik hego haizea bizitu zelako, eta bestetik hegazkin gehiagorik pasatu ez zelako. Azken horregatik batik bat. Benitori ez zitzaion burutik joan hala ere pilotu-antiojuak janzteko gogoa, ezta gutxiagorik ere. Ahots apalarekin aipatzen zen gerra hori ez zuen askorik ikusten, lantzean behin agian eskolara bidean topatzen zituzten gudari-taldeetan, baita mahaiko plateren barruan eta sarri nagusien aurpegietan ere. Bailaran, aurpegiak aurpegi, bizitzak ohiko erritmora itzultzeko ahaleginetan ziharduen. Askanan galdutako bi behitxoak ere topatu zituen aitak, erreka ondoan ura edatera joan zirenean harrapatu zituen. San Martinerako txerria hil zuten eta horrek alaitasun pitin bat ekarri zien. Lodiegi ez zegoen txerritxoa, baina odoloste batzuk egiteko beste eman zuen. Dena prestatu eta badaezpada ondo gorde zuten ganbaran, sahieski eta solomo horiek zenbateraino behar izango zituzten pentsatuz.

Arrastoa ia ia garbituta zegoen eguerdi batean, gora begira geratu ziren aita, ama eta seme-alaba guztiak, sukaldeko sabaia tartean zegoela ezer gutxi ikusiko zutela kontuan hartu barik. Oraingoan hurbilago nabaritu zuten zarata lodia, mendebaldetik. Ondoren, zarata itzela aditu zen, zerbait birrinduta geratzen deneko zarata, eta denak altxatu ziren mahaitik. Amak besoetan hartu zituen ahizpa txikiak, eta aitaren atzetik joan zen sotorantz, aieneka. Benito eta Jesus ere altxatu ziren patata artean saman trabatuta, irentsi barik, eta arineketan hasi ziren amaren pausu urduriei jarraituz. Benito ez zen sotoraino heldu, ganbarako eskailerak ikusi zituen bidean eta ideia bat etorri zitzaion burura. Beharbada, teilatura igoz gero, ikusi ahal izango zituen pilotuaren antiojuak. Suerte apur batekin.

Argira atera zen ganbarako leihotik gora eta hantxe goian ikusi zuen bonbarderoa zeruan harro, artean urrun, bai eta kezutabe luzea ere Sandamendi parteko etxeren batean. Kuartel bihurtuta zegoen komentu zaharrean beharbada. Helizeak itzelak zituen, lau helize perfektu, zarata perfektua ateratzen zutenak. Bonbarderoak lau hegaldi biribil egin zituen herriaren gainetik eta orduan Zubietarako bidea hartu. Artez beragana. Mutikoak aurrez aurre ikusten zuen hurbiltzen, eta ezin zion begi-

ratzeari utzi, liluraz, xalotasunez. Teilatuaren gainetik igaro baino apurtxo bat lehenago saiatu zen begiak zorrozten eta pilotuaren betaurrekoak eta bibote iletsua ikusten, baina alferrik izan zen, hegaletan marraztuta zeuzkan gurutze ikaragarriak ikustearekin konformatu behar izan zuen. Hozkirria nabaritu zuen azalean gainetik pasatu zenean. Hurrengo batean agian pilotua beheratxoago pasatuko zen, eta ikusiko zuen, eta agian jaitsi eta utziko zion berarekin joaten Italiara, edo Ameriketara.

Zarata beldurrak hartutako gizon batek etxe barrutik semeari botatzen zizkion oihuak itotzeko modukoa zen, edo gehiago.

Goian, hogeita hiru urteko mutil batek, eskumako eskua bonbarderoak azpian zuen konporta zabaltzeko palankatik aldendu eta bekokiko izerdia goanteko larruaz sikatu zuen, hasperen sakon bat egiten zuen bitartean. Ez zen etxe hori, antza, komunistaz beterik zegoena. Edo berak behintzat hala pentsatu nahi zuen, eskuaz agur egiten zion mutiko txiki hori ez zela komunista arriskutsu bat.

Ganekogortako larreen berdea hegalazpian zuela egin zuen alde bonbarderoak Gordexolatik. Ume batek agur egiten zion eskuaz, ameslari, inoiz antioju dotoreak janzteko esperantzaz.



JABIER KALZAKORTA

Uretako jaun edo *Zalduko jaun*aren balada

SARRERA

Bada orain arte euskal balada-biltegi edo liburuetan agertzen ez den baladagai bat: *Uretako jaun* edo *Zalduko jaun*-aren balada. Balada hau, gure uste apal eta argalean, lepidopterologoek oraindik sailkatu ez duten mitxeleta zoragarri baten gisa, oraindik aztertu eta sailkatu gabeko bitxi harrigarri bat da. Zahar kutsu handia duen baladarik baldin badago gure bilduma urrietan, hauxe da bat. Gaztelu eta korte girokoa da bete-betean. Balada honetan errege-erreginak, anderauren, zaldun, ezkutari eta mandatariak agertzen dira. Lekuak ere halakoxeak dira: kortea, erregeren etxea, (jauregiko) sala ederra. Zahar kutsuko balada gehienetan bezalaxe, elkar hizketa zorrotz eta indartsuak ere badaude. Eta, nahiz euskal testuan ilunsko gelditzen den, heriotza bat ere egiten da modu basatian, euskal kanta narratiboetan ohi denez.

Balada zahar honetako haria edo gertaera-katea ez da erraz antzematen. Haria ulertzeko euskal testua ez ezik, testuaren argigarri den frantseseko sarrera edo azalpen bat ere badugu. Zer da, beraz, hitz bitan, balada honetan gertatzen dena?

Lehen aldaeran, ahapaldi gutxi badira ere, erregina batek bere kortean zaldun bat dantzan ikusten duela, honen edertasunari ohartzen dio. Hain zaldun eder eta apaina ikusirik, bere senarrari galdetzen dio nongoa den. Erregek Lapurdikoa dela diotso, baina mehatxu egiten dio ez duela amorantetzat bizirik izango... Lehen bi ahapaldietan halaxe ulertu arren, beste bietan ilunago gertatzen da haria.

Bigarren aldaera askoz osoagoa denez, argudio biribilago bat antzeman dezakegu: Erregina bat, bere jauregian dagoela, zaldun dotore bat ikusi ondoren maitemindu egiten da. Zaldun hori aberatsa eta apaina da –satin morez jazten da—, eta erreginaren gogoa bereganatzen du. Zalduna apain eta liraina da, hain gizonezko ederra sortu zuen amaren gorantzak egiten baititu. Zaldun horrek, itxurak direnez, gitarra bat jotzen du. Garai bateko trobadoreen bertsio modernoa ote da? Zaldun horrek erreginarekin harremanak izaten ditu, eta erregeren belarrietara iristen da izterbegien salaketa bidez. Erregek, orduan, zalduna bere begien aurrera erakarri eta traidore izendatzen du. Zaldunak bere burua defendatu arren, ezin du erregeak ematen dion heriotza-zigorretik aldendu. Zazpi hor edo txakurrek triskatzen dute heriotza krudelean gure zalduna, azkenik. Zazpi txakur hauek "otso-zakurrak" dira, edo testuan agertzen den moduan,



Hemen dator bi testuetariko bakarra.

martin Arzuza gudulatin gudulati
zic daukiat Zarpi Sarroin hor
Sarroin horig ez dagoo guizonati
judatzu Zarpi zaldun esentari
ez ezari heyan geldari

espèce de chansons copiées sous la dictée d'une vieille femme dont la mémoire avait retenu quelques lambeaux détachés des chansons originales qui devaient être intéressantes quoiqu'elles n'aient guère ni tête ni queue : elles paraissent avoir quelque valeur comme monument historique : elles sont certainement du temps où il y avait encore un roi de Navarre ayant son palais et sa cour à Pau : et peut-être celles aussi quelques chansons toyennes où la cour pouvait se transporter de temps en temps :

La première chanson est l'histoire de la mort d'un seigneur de Zaldun de Zarpar pour laquelle la reine ayant eu quelque attention Zerri lui fit montrer par sentiment de jalousie :

La seconde parle de la mort tragique provoquée par la même cause d'un seigneur de Mr d'Ureta : ce qui prouve qu'il y avait en ce temps dans le pays basque une maison ou un château appelé Ureta : : où étaient-ce ?.. qui le sait...

Zerri lui fit tuer sept chiens (dogues ou autres) ce ne fait ce que c'est Sarroin ou Sauroin : il en avait déjà tué six lorsqu'une femme de palais par une fenêtre lui jeta un tamis de cendre qui lui aveugla les yeux, ce qui donna gain au chien qui l'étrangla...

sarroin-horak, hau da, *sagarroi-horak*, txakurren lepokoa arantzez josia baitago.

Argudioari edo gertaera-kateari dagokionez, baditugu antzera xamarrekoak. Bi antzekoenak aipatzekotan "Behin batez yoan ninduzun" eta "Erraplanpan atabala joiten dute herrian (Antonio Zavalaren *Euskal erromantzeak. Romancero vasco*, Auspoa Liburutegia 1998, 61-66 or.). Gure lantto honen helburu nagusia xumea da: baladen testuak zehaztea, gehiagoko gabe. Alderdi historikoak, beste hizkuntza batzuetako parekotasunak eta abar ez ditugu ukituko. Uste dut gure balada-korpuseko testuak ez daudela ondo finkaturik, huts eta gaizki-ulertu bat baino gehiago ditugu, tamalez. Oinarri-oinarrizko lana dugu hau, xumea bezain beharrezkoa.

GURE BALADAREN ITURRI ETA ZEHAZTASUNAK

Balada hau lehenengoz Piarres Charrittonek argitara eman zuen artikulu interesgarri batean: "Aita Sauveur Lardapide (1812-1889) Hazparneko Misionestaren paperak" (*Luis Villasanteri Omenaldia*, Iker 6, Euskaltzaindia 1992, 143-159 or.). Guk ez dugu, bistakoa denez, Lardapide horren berri emango. Interesa duenak jo beza aipatu artikulura. P. Charrittonen artikuluko muin nagusia, Lardapide eta misionesten berri zehatz eta aberatsak eman ondoren, Baionako museoan gordetzen den berrogei orrialdeko eskuidatzi bateko kanturik interesgarrienak argitaratzea izango da. Lardapideren esku-izkribuak MS 168 signatura du, eta guri dagokigun balada lehen kantua da. Lehena izatea, gure ustez, ez da kasualitate hutsa. Lehentasuna bat dator, beti ere gure ustean, kantuak duen mentu edo gorarekin. XIX. mendean, Archu xuberotarrak kantu honen esapide bat behintzat (*Nungorik nungo*, hain zuzen) bere hiztegi argitaragabean jaso zuen. Zergatik? Archuk Francisque Michel historialariari hainbat balada eta euskal kantu eman zizkion eta bazekien kantu historikoek izan zezaketen balioa. Archuk, besterik demostratzen ez den bitartean, Lardapideren paperak ikusi eta bere hiztegira jaso zituen hitz zein unitate fraseologikoak. Archuren uzta, neurri batean behintzat, Retanaren hiztegian jasoa dago, eta nahi duenak jo beza aipatu iturri zein iturbegira.

Berrogei plamako eskuidatziko letra, askotxotan gertatzen denez, ez da nahi bezain argia izaten eta artikulugileak testua ulertu ez ezik, gaurko erara txukun transkribatzen eta puntuatzen saiatzen da. Baladak badu frantsesez emandako azalpen bat, nori bildua den, kantuaren hitz bitxiak eta abar. Euskal literaturan era honetako material zahar eta baliotsu gutxi ditugunez gero, ahal bezanbat saiatuko gara ongi transkribatzen. Charrittonen transkripzioarekin bat etorri arren gehienetan, guk iturrian dagoen bezalaxe transkribatuko dugu, bere ohar eta zertzeladekin.

FRANTSESEZ DAUDEN TESTU ETA ARGIBIDEAK

Testu bi ematen ditu Lardapide misionestak. Testu bi horiek, era berean, bi aldaera dituzte. Frantsesezko azalpena nagusiki bat izan arren, bi aldaeratan dago. Frantseseko testuei ere, dauden bi ereduen ondoren daudenez gero, A eta B deituko diegu. Testu bi hauek ez ditu Charrittonek bere artikuluan transkribatu, bai, ordea, bi hauen laburpen bat: "Lardapiden esku-izkribuaren lehen bizpalau orrialdetan kausitzen ditugu bertso zenbait, idazleak berak dionaren arabera, emazte xahar baten oroimenari puskaka edekiak izan direnak" (147 or.).

(A testua)

Espèce de chansons copiées sous la dictée d'une vieille femme dont la mémoire avait retenu quelques lambeaux dechirés des chansons originales qui devaient être intéressantes quoiqu'elles n'aient quasi ni tête ni queue: elles paraissent avoir quelque valeur comme monument historique: elles sont certainement du temps où il y avait encore un roi de Navarre ayant son palais et sa cour à Pau: et peut-être ailleurs aussi quelques châteaux[1] royaux où la cour pouvait se transporter de temps en temps:

La première chanson est l'histoire de la mort d'un seigneur de Zaldua de Haspar[2] *pour laquelle*[3] *la reine ayant eu quelque attention le roi le fit mourir par sentiment de jalousie.*

La seconde parle de la mort tragique provoquée par la même cause d'un seigneur ou Mr. d'Ureta: ce qui prouve qu'il y avait eu ce temps dans le pays basque une maison ou un château appelé Ureta: Où était-ce?... Qui le sait...

Le roi lui fit lancer sept chiens (dogues ou autres) je ne sais ce que c'est sarroina ou sarroinu. Il en avait déjà tué six lorsqu'une femme du palais par une fenêtre lui yeta un tamis de cendre qui lui aveugla les yeux, ce qui donna gain au chien qui le etrangla...[4]

Bigarren testu frantsesak (B testuak) honelaxe dio:

Espèce de chansons copiées sous la dictée d'une vieille femme dont la mémoire avait retenu quelques lambeaux dechirés des chansons originales qui devaient être interessantes quoiqu'elles n'aient quasi ni tête ni queue: elles paraissent avoir quelque valeur comment monument historique: elles sont certainement du temps où il y avait ancore un roi de Navarre ayant son palais et sa cour à Pau et peut-être ailleurs aussi quelques châteaux[5] *royaux, où la cour pouvait s'y transporter de temps en temps...*

La première chanson est l'histoire de la mort d'un seigneur de Zaldua de haspar: pour lequel la reine ayant eu quelque attention de roi le fit savoir par sentiment de jalousie.

La seconde chanson parle de la mort tragique provoquée par la même dame d'un seigneur ou Mr d'Ureta

Ce qui prouve qu'il y avait eu ce temps dans le pays basque...[6]

Hirugarren testu bat ere badago:

Dans le pays basque, une maison ou un château appelé Ureta! Où etait ce? Qui le sait.

Le roi lui fit lancer sept chiens (dogues ou autres): je ne sais ce que c'est sarroin ou samoina!

Il en avait déjà tué six lorsqu'une femme du palais par une fenêtre lui jeta un tamis de cendre qui lui aveugla les yeux, ce qui donna gain au chien qui l'etrangla.[7]

Frantsesezko bigarren testua, aurrekoaren oso antzerakoa izan arren, laburxeagoa da. Zergatik dira interesgarriak hiru testu hauek? Zuzenean eta zeharka dagoen informazioagatik. Has gaitezen zeharkakoekin. Azken testu honetan biltzaileak dio ez duela ezagutzen *Uretako* gaztelua, jauregia edo jaun-etxea. *Zaldu*ko gazteluaz, ordea, ez dio ezer. Zergatik? *Zaldua* ezagutzen bide zuelako. Honelaxe dio, esaterako, Xarrittonek oin-oharrean: "*Zaldua* Hazparnen *Sault* izeneko jaunen jauregia zen eta bazeuden *Zaldu Zaharrea* eta *Zaldu Berria*, lehena Labirin, bigarrena Zelaian". Lardapidek, beraz, Zalduatarren etxea ezagutzen zuen Hazparnen eta ez Uretakoa.

Frantsesezko testu hauetan badira baladetan ez dauden datu berriak ere. Erregeak zazpi ortzar edo zakur beldurgarri jaurti ondoren, sei hiltzen omen ditu Zalduko jaunak. Jauregiko emakume batek, ostera, bahe bat errauts bota ondoren, zalduna itsutu eta zakurrak errazago itotzen du zalduna. Bahe bat errauts leihotik botatzea eta gizona itsutzea informante edo berriemaile xaharrak

kontatuak izan behar dute. Zehaztasun horiek euskal baladan sartuak izango ziren aintzinatean... Emakume xaharrak, ordea, xehetasun horiekin balada jantziago eman zion. Antzeko elementuak baditugu beste balada batzuetan "Behin batez yoan ninduzun..." horretan Musde Belzuntze ehizara doa bere txakurrekin. Testuan agertzen ez bada ere, badirudi bere horak emakume bat hiltzen dutenak izango direla. Antzeko zerbait gertatzen da "Ura ixuririk" baladan ere: Piarresen horek edo txakurrek oreina triskatzen dute.

Historikoki balada interesgarria dela dio biltzaileak. Badirudi Lapurdin, Hazparne inguruan lekutua dagoela gure balada. Hor agertzen den Martin Azantza protagonista Azantzatarren leinukoa zen. Azantzatarrak Kanboko jaun ezagunak izan omen dira. Zaldu(a)tarrak ere Hazparneko etxe ezagun batekoak. Alderdi historiko hau ez da, dena den, gure lantto honen helburua. Utz dezagun, beraz.

ZALDUKO JAUNAREN BALADA

Lehen balada honek oso ahapaldi gutxi ditu. Hona argudioaren hari nagusia. Erregina maitemindu egiten da Zalduko jaunaz eta erregeak hil egiten du delako Zalduko jauna. Bersio honetako bigarren ahapaldia eta ondoren emango dugun baladako hirugarrena antzerakoak dira. Gainerakoan, bateratasun gutxi daude. Balada honek bateratasun nabarmenak dituenez gero "Behin batez yoan ninduzun..." horrekin, zenbait ahapaldi erkatuko ditugu.

1
(A)
Zalduco jauna guerletan
erregueren jendietan
dantzan ari cen
erregueren etchian
eta sala eder batian

(B)
Zalduko jauna guerletan
erregueren jendietan
danzan ari cen
erregueren etchian
eta sala eder batian.

Zalduko jauna gerletan/ erregeren jendietan/ dantzan ari zen/ erregeren etxian/ eta sala eder batian.

Eskuidatziko bi transkripzioetan zein Charritonenean ez dago diferentzia handirik. Esangurari gagozkiola, ilunskoa da. Zalduko jauna Erregeren etxean, jauregi eder batean dantzan ari da. Pentsatzekoa da erregina maitemindu egiten dela dantzan ari den Zalduko jaun ederraz. Esangurari gagozkiola, ilun gelditzen da Zalduko jauna gerletan egotea, erregeren jauregian dantzan ari baita.

"Behin batez yoan ninduzun..." baladako lehenarekin badu eite bat: *Behin batez yoan ninduzun/ Isturitzeko plazarat,/ andre eder bat ikusi nuen/ dantza-buruan zuhala*. Gurean alderantziz da, emakumea da jaun eder bat dantzan ikusten duena.

Charritton: *Zalduko Jauna gerletan/ Erregeren jendietan,/ Dantzan ari zen,/ Erregeren etxian,/ Eta sala eder batian.*

2
(A)
erreguinac erregueari
nungoric nungo zaldun escutar[i] hori?
Anderia Laphurdico
biciric ez da etcheraco:

(B)
erreguinak erregueari
nungorik nungo zaldun: escutar hori
Anderia Laphurdico
bicirik ez da etcherako

Erreginak erregeari:/—Nungorik nungo zaldun eskutari hori?/—Anderia, Laphurdiko/ Bizirik ez da etxerako.

Autu edo elkarrizketa zorrotzez hornitua dago ahapaldi hau. Erreginak galdetzen dionean senarrari nongoa den zalduna bere interes eta amodioa agertzen du. Erregek, bizirik ez dela etxerako dioenean, zeloti eta herratsu agertzen du bere burua. Nongoa den jauna hemen garbiro esaten da: Lapurdikoa. Baladaren lekutzea sinadura bezalakoa da. Beste ereduan ez da agertzen.

Bigarren ahapaldiak ere "Behin batez..." horren bigarrenarekin du zerikusia: *Atsoño bati galde egin nion:/ —Nongoa da andre eder hori?/ —Murde Belzunze, hori duzu Agerreko alaba*. Norbaiti begia ezarri ondoren nongoa den galdetzen dio Murde Belzunzek. Gure baladan erreginak galdetzen du nongoa den zalduna.

Ahapaldi honetako bi ereduetan, itzulpen bat dator *zaldun* eta *escutar* hitzen azpian edo ondoan. *Zaldun* hitzaren ondoan/azpian "chevalier" eta *escutar* horren ondoan/azpian "écuyer".

Charriton: *Erreginak erregeari:/ Nungorik nungo/ Zaldun eskutari hori?/ —Anderia, Lapurdiko./ Bizirik ez da etxerako.*

3
(A)
goraintci! goraintzi
azparnerat orori
ez orori bardinki
ene emazteari hobeki
eta pupuna Anderiari.

(B)
goraintzi: goraintzi...
Azparnerat orori
ez orori bardinki.
ene emazteari hobeki
eta ponpouna Andereari

Goraintzi, goraintzi/ Hazparnerat orori/ Ez orori bardinki, ene emazteari hobeki eta pupuna anderiari!

Aurreko ahapaldian Laphurdiko zigilua ikusten genuen. Hemen Lapurdiko lekua markatzen da zehazki: Hazparne. Transkripzioari gagozkiola, bi ereduetan *bardinki* ikusten dut, Charrittonenean *berdinki*. Hitzei gagozkiela, *pupuna* eta *ponpouna* hauen artean *pupuna* da aldaerarik inportanteena. *Pupuña* hitza *panpiña*-ren aldaera izan daiteke, eta emakume eder eta lirain adierazi nahi du. "Behin batez..." baladan ere agertzen da: *—Ene alaba Kattañiñaño/ hitz emanikan dagozu;/ haren ondoko pupuñañoa,/ jauna, plazer baduzu.*

Charriton*: Goraintzi! Goraintzi!/ Hazparnerat orori./ Ez orori berdinki,/ Ene emazteari hobeki,/ Eta pupuna andereari.*

4
(A)
Jaincoac eman dozola Senharra
guizon thipi on handi
Amac bezain gori
ez duen bihotz-mina

(B)
Jaincoak eman dozola senharra
Guizon thipi on handi
Amak bezain gori
ez duen biotz-mina...

J*ainkoak eman dozola senharra/ gizon thipi on handi/ amak bezain gori ez duen bihotz-mina.*

Charritonek eskeintzen duen transkripziotik bi kontutxo desberdin ikusten ditut. Adizkiei gagozkiela, *dezola* ikusten du Charrittonek. Bi ereduetan, ostera, *dozola* ikusten da. Lehen ereduan, beharbada, *dorola* irakurtzeko arriskua dago. Beste alde batetik bihotz-mina *gori* edo *gorri* ote da? Eredu bietan guk *gori* ikusten dugu, inolako dudarik gabe. Bihotz-mina gorri irakurriko bagenu, metafora polit bat legoke: bihotzeko zauria, minez odoletan dago, zauria hertsi gabe odola dariola dago, *gorri.* Bihotz-mina *gori* ez da, guk uste, galdatan edo *gori-gori* egotea txingar irazekietan goritutako burdina bezala. Bestaldeko tradizioko *gori* hitz honek "fertile, fécond, abondant" euskaraz *ugari* adierazten du[8]. Edo figura polit bat eginez adiera biak. Anfibologia edo polisemia interesgarri bat eginez.

Charritton: *Jainkoak eman dezola senarra/ Gizon tipi on handi/ Amak bezain gorri/ Ez duen bihozmina.*

URETAKO SEMEA-REN BI TESTUEN TRANSKRIPZIOA

Atal honetan ere bi testuetako ahapaldiak jarriko ditugu bata bestearen ondoren. Bi ahapaldien ondoren, bietatik osatu daitekeen gure transkripzio-testua jarriko dugu. Testu honek gure puntuazioa eta erabakiak ere bilduko ditu. Oraingo honetan ere zenbait hizkuntza-zehaztasun iruzkin egingo ditugu. Eskuidatziko bi transkripzioak direla eta, lehen bost ahapaldiak zenbakituak daude, gainerakoak osorik ez daudenez gero, batera emanak daude. Guk, geure atal honetan, Xarrittonen transkripzio-eredua jarraituko dugu. Bosgarren ahapalditik aurrerakoak desegin eta desitxuratuak daudenez gero, ezinezkoa dirudi ahapaldiak bertso-lerroetan tolestea.

1
(A)
Goizean hotz da eguerdico bero da
Uretaric lanhoa atheratcen da
Martin Azanza Uretanra badoha
badoha, bainan amaren manuz ez doha

(B)
goizean hotz da, eguerdiko bero da;
uretarik lanhoa atheratcen da
martin Azanza uretara badoha.
badoha, bainan amaren manuz ez doha.

Goizean hotz da eguerdiko bero da;/ Uretarik lanhoa atheratzen da./ Martin Azantza Uretara badoha./ Badoha, bainan amaren manuz ez doha.

Bi testuetako lehen ahapaldi hau izan daiteke jatorrizko kantaren lehen ahapaldia ere. Zergatik? Kopla zaharretako teknikaduna delako bete-betean. Era horretako sarrerak edo exordio indartsuak balada batek baino gehiagok dute. Bereterretxeren kantorearena da ezagunenetakoa, dudarik gabe. Era horretako sarreran, izadian ikusi ohi ditugun fenomenoak ageri dira. Ahapaldi honetan ere argi ikusten da diogun kontu hori.

Transkripzioari dagokionez, *Uretaric* eta *Uretanra/Uretara* biak ote dira izen propioa? Halaxe uste dugu, izen propioak ez balira eta pluralean ez baleude, *urera(t)* eta *uretik* izango litzatekeelako Lapurdiko euskaraz. Adibideak milaka eman daitezke. "Goizean goiz jeikirik" kantan honela ikusten dugu: *Goizean goiz jeikirik, argia gaberik/ Urerat joan ninduzun, pegarra harturik.* Harritzen gaitu Xarritonek bata maiukulaz eta bestea minuskulaz agertua. Era berean, ablatiboa kasu bietan da *Uretaric* eta ez, inondik inora ere, *Uretatik*.

Xarritton: *Goizean hotz da, eguerdiko bero da;/ Uretatik lanhoa ateratzen da./ Martin Azantza uretara badoa./ Badoa, bainan amaren manuz ez doa*.

2
(A)
Martin Azanza satin morez da beztitu
[K]alean gora guitharra soinuz phassatu
erreguina leïhoan guerthatu

(B)
martin Azantza satin morez da beztitu,
[K]alean gora guitharra soinuz phassatu,
Erreguina, leïhoan guerthatu.

Martin Azantza satin morez da beztitu,/ [k]alean gora githarra soinuz phasatu,/ erregina leihoan gerthatu.

Ahapaldi honetan bi transkripzioak bat datoz. Hitzei dagokienez, *alean gora* hori, baliteke *kalean gora* izatea. Harrigarri baino harrigarriago egiten zaigu *karrika* ez agertzea, askoz ere egokiago izango litzatekeelako lapurteraz. Errege eta jaun handikien jantziaren ezaugarria dugu *satin morea*. Martin Azantza satin morez jaztea jauntasunaren seinale argia da.

Xarritton: *Martin Azantza satin morez da beztitu,/ Kalean gora gitarra soinuz pasatu, / Erregina, leihoan gertatu*.

3
(A)
erreguinac bere Anderaurenari
nungoric nungo, Zaldun: escutar[i] hori?
ez da ez hori ez zaldun ez escutari
uretaco semea da hori

(B)
erreguinak bere Anderaurenari:
nungorik nungo, zaldun, escutar[i] hori?
ez da ez hori ez zaldun, ez escutari
uretako semea da hori.

Erreginak bere anderaurenari:/ —Nungorik nungo zaldun eskutari hori?/ —Ez da ez hori ez zaldun, ez eskutari/ Uretako semea da hori.

Ahapaldi honetan ere bateratsu datoz bi transkripzioak. Ahapaldi honen oso antzerakoa da gorago ikusi dugun ereduko bigarrena. Ezer harrigarri egiten bada eskutar hori da. Archuk eta Retanakoek ere berdin transkribatzen dute. Ez da dudarik "escutar" *eskutari* denik. Zergatik, beraz, horrela eman?

Xarritton: *Erreginak bere anderaurenari:/ "Nungorik nungo zaldun eskutari hori?/ —Ez da ez hori ez zaldun, ez eskutari,/ Uretako semea da hori"*.

4
(A)
Arranda bat eman nezake
Hura etzan den sabelari
Bai eta benedica hari eman dion uhat[za]

(B)
Arranda bat eman nezake
hura etzan den sabelari
bai eta benedika hari eman dion uhatxa.

Arranda bat eman nezake/ hura etzan den sabelari,/ bai eta benedika hari eman dion ugatza.

Bi transkripzioak bateratsu datoz oinarrian. Uretako zaldunaren amaren goraipamena egiten da semearen edertasuna eta handitasuna goratuz. *Arranda* hitza ondo dokumentatua dago bestaldeko tradizioan, batez ere Zuberoakoan. Hitzik ilunena *uhat[za]* edo *uhatxa* transkripziopean gordetzen dena da. Charrittonek bete-betean asmatu duela deritzagu: *ugatza*. Amaren gorputz-alderdien gorantza egiten duela lehen hitza *sabela* da eta bigarrena *ugatza*.

Xarritton: *Arranda bat eman nezake,/ Hura etzan den sabelari,/ Bai eta benedika hari eman dion ugatza*.

5
(A)
Ichter beguiek laster zaïen erregueri
Erreguec berehala gutunarekin mandatar[i]
Khausi dadila haren cortean laburzki

(B)
ichter beguiek laster zaïen erregueri
erreguek berehala gutunarekin mandatari
khaussi dadila haren kortean laburzki.

Ixterbegiek laster zaien erregeri,/ erregek berehala gutunarekin mandatari,/ khausi dadila haren kortean laburzki.

Lau hitz behintzat desberdin transkribatu dugu Xarrittonenetik. Lau hitzetan, gainera, bateratasuna dago jatorrizko testu bietan. Lehenean, *ister/ixter* dugu zalantza. Ez dago dudarik bi aldiz argiro ikusten dugun "Ichter beguiek" gure erara *ixterbegiek/-ak* transkribatu behar denik. *Ichter*-(...) horretako bustidura zer da, adierazkorra edo automatikoa? Bestela esan, zer esan nahi du *areriotxoek* edo *arerioek*. Pentsatzekoa da orain dela ehun eta berrogeita hamar urte hasi zela Iparraldean trixte, ixtorio eta abarretan (ist- kontestuetan) bustidura automatikoa. Gure adibide hau ere tankera horretakoa da, inolaz ere. Ahapaldi bakoitzean bi aldiz agertzen da errege hitza. Bi era horietan beti mugagabean ikusten dugu *erreguec/erregueri*. Bi transkripzioetan argi ikusten dugu. Ez dugu, beraz, dudarik ttipiena ere izan. Bi transkripzioetan argi ikusten dugu *cortean* eta ez inondik ere *gortean*[9]. Hurrengo ahapaldian ere berdin ikusten dugu *corte*-, nahiz honetan ere Xarrittonek *gorte*- transkribatu. Laugarren hitza *laburzki* dugu, eskuidatziko bi transkripzioetan berdin ikusten duguna, Lapurdiko tradizioan agertzen den bezalaxe, eta ez inondik ere *laburki*.

Xarritton: *Isterbegiek laster zaien erregeri,/ Erregeak berehala gutunarekin mandatari,/ Kausi, dadila haren gortean laburki.*

6
(A)
Botaq janxi eta igan zaldiari
eta eman lasterrari...
Jaincoac egun on dizula erregueren corte[a]
Bai eta hiri ere Uretaco Semea!

(B)
botak janxi eta igan zaldiari
eta eman lasterrari...
yaincoac egun on dizula
erregueren cortea
baï eta hiri ere Uretako semea
martin Azanza

Botak ja(u)ntzi eta igan zaldiari/ eta eman lasterrari.../ —Yainkoak egun on dizula/ erregeren kortea! —Bai eta hiri ere, Uretako semea, Martin Azantza.

Jatorrizko bi transkripzioetan ez dago aldaera nabarmenik. Bigarren transkripzioan *Uretako semea* horren gehigarria aposizio esplikatiboa da: *Martin Azantza*. Ahapaldi honetako gauzarik markagarriena da Xarrittonek ez transkribatzea bi ereduetan agertzen den "eta eman lasterrari". Beste alde batetik, "janxi" irakurtzen dugu bi ereduetan. Xarrittonek Lapurdiko tradizioari jarraiki "jauntzi" transkribatzen du. Ahapaldi honetan ere, aurrekoan bezala, ez dugu dudarik egin: *cortea* irakurtzen dugu eta ez *gortea*.

Xarritton: *Botak jauntzi eta igan zaldiari:/ "Jainkoak egun on dizula, erregeren gortea!/ —Bai eta hiri ere, Martin Azantza, Uretako Semea"*.

7
(A)
Martin Azanza, hi omen hut traidore
bai Martin Azanza hi omen hut traidore
ez nauzu ni traidore
ez ene linian batere
traidoreac badira ere zure leinian dire
eta zu cerori heyer ogui emaile

(B)
Martin Azanza hi omen hut traidore!...
Bai martin Azanza hi omen hut traidore!...
ez nauzu ni traidore
ez ene linean batere,
traidoreak badira ere zure linian dire,
Eta zu zerori heier ogi emaile".

Martin Azantza, hi omen hut traidore/ bai, Martin Azantza, hi omen hut traidore!/ —Ez nauzu ni traidore, ez ene l[e]inuan batere/ traidoreak badira ere zure l[e]inian dire,/ eta zu zerori heier ogi-emaile.

Elkar hizketa indartsua Martin Azantza eta Erregeren artean. Bi ereduetan errepika bat agertzen da. Errepika hau ez du jaso Xarrittonek. Hitzei gagozkiela, *leinu* hitza, beti inesiboan dagoela, hiru eratara agertzen da: *linian/ leinian/ linean*. Adizkiei gagozkiela, *hut* agertzen da beti *haut* formaren aldaera bezala, baina *nauzu* eta ez *nuzu*. Duda handiagoa dugu *dira* atzizkiarekin. Baldintzan, eredu bietan, *badira* ikusten dut, baina *dire* bertso-lerro bukaeran, *traidore* eta *emaile* hitzekin hoskide dela.

Xarritton: *Martin Azantza, hi omen hut traidore!/ –Ez nauzu ni traidore, ez ene leinian batere,/ Traidoreak badira ere, zure leinian dire,/ Eta zu zerori heier ogi emaile.*

8
(A)
Bai martin Atzanza hi omen hut traidore
Salbu ordena eta guezurra dioc Erregue
Ez khoroa sal truq ere, Uretaco semea

(B)
bai martin Azanza hi omen hut traidore!
Salbu ordena eta, guezurra diok errege
ez khoroa sal truk ere, Uretako Semea".

Bai, Martin Azantza, hi omen hut traidore!/ —Salbu ordena eta gezurra diok, Errege,/ ez khoroa sal truk ere, Uretako Seme.

Aurreko ahapaldian zuka egiten dio Martin Azantzak erregeari. Oraingoan berotu dira eta hikara pasatzen da M. Azantza. Euskarari dagokionez, badago kontu interesgarri bat. Martin Azantzak erregeari *gezurti* deitzeko *salbu eta* aurrekaria erabiltzen du. Hitz hau askotan erabiltzen zuten euskaldunak. Pertsonak animaliekin konparatzeko,

esaterako, *arima salbu* erabiltzen zen: *txerria dirudizu, arima salbu*[10]. Hemen erregeari gezurti deitzea gogortxoa denez, *salbu ordena eta* aurrekaria dator.

Xarritton: *Bai Martin Azantza, hi omen hut traidore!/ –Salbu ordena eta gezurra diok Errege,/ Ez koroa sal truk ere Uretako Semea.*

9
(A)
guerthuri[k], erregue, ez nuc orhoitu ere
martin Azanza gudulariz gudulari
nic dauzkiat zazpi sarroin hor

(B)
guezurthi erregue, ez nuk erregue ere
Martin Azanza, gudulariz gudulari...
nik dauzkiat zazpi sarroin hor

—Gezurti/ gerthurik, errege, ez nuk orhoitu ere/ Martin Azantz, gudulariz gudulari/ —Nik dauzkiat zazpi sarroin hor.

Bi transkripzioetan ez dago bateratasunik. Hitz bat desberdin irakurtzen da batean eta bestean. Lehen transkripzioan *guerthuri[k]* irakurtzen dugu eta "dirudienez", "ausaz" edo horrelako zerbait adierazten du. Adberbio hori *gerthuz* baten baliokide da. Bigarrenean hitz horren lekuan *guezurthi* dator. Beste desberdintasun bat ere badago lehen transkripzioan *orhoitu* ikusten dugu, eta bigarrenean *erregu*e. *Gudulari* hitza Silvain Pouvreauk eta Duvoisinek ere agertzen dute. Hitz bitxiagoa da, inolaz ere, *sarroin hor*. Hitz hau birritan dokumentatzen da balada honetan, X eta XI ahapaldietan. Pentsatzekoa da hitz honen bidez esaten zena gora handikoa izan behar zuela emakume xahar berriemailearen azalpena frantsesez ere jaso baitzuen Lardapidek. Sarroin –(hor) hau txakur klase bat da eta transkribatzaileak ere ez zekien zer adierazten zuen *sarroin* delakoak. Sarroin-hor horretan hitz konposatuaren bigarren elementua garbi dago *(h)or*, hau da, "txakurra". Hitz hau tradizio zaharrean, Euskal Herri osokoa zen, are Bizkaikoa ere. Gaur egun ekialdeko tradiziokoa dugu, batez ere. Guk asmatu uste dugu sarron-hor hitz horren esangura. *Sarroin-or* ez da besterik *sagarroi-hor* baino. Eta zer da sagarroi-hor? *Sagarroia* kirikioa edo trikua da. Hitz hau ondo baino hobeto dokumentatua dago. Halaxe erabiltzen zuten autore klasikoek, Axularrek eta abarrek. *Sagarroi* hitzaren laburdura *sarroi* dugu. Sarroi hitza ere ondo dokumentatua dago batez ere XIX-XX mendeetan. Hitz konposizioa denez gero, *sarroiN-or* ikusten dugu. Eta zer adierazten du horrek? Txakur armatua dugu, *sarroin-(h)ora* lepoko iltzeduna duen txakurra. Lepoko iltzeduna zuten txakurrak otso-zakurrak ziren, gazteleraz "mastín" eta otsoen kontra erabiltzen ziren[11]. Erregeak Martin Azantza menderatzeko zazpi *hor iltzedun* bota nahi dizkio, zazpi triku-txakur... Elkar hizketa honetan garbi dago *—Gezurti/ gerthurik, errege, ez nuk orhoitu ere* gure protagonista Martin Azantzak dioela. Mehatxua edo zemaia, ostera, Erregearen ahotik etorriko da: *— Nik dauzkiat zazpi sarroin hor.* Hau da, zuk niri gezurti esan didazu eta erantzuera horren sari izango dituk hi triskatuko hauten lepoko iltzedun zazpi txakur.

Joan gaitezen orain beste kontu batera — *Martin Azantza, gudulariz gudulari/* dioenean zer dio Erregeak? Duelo edo burruka batera deitzen dio Erregeak *gudulariz gudulari* hori es da besterik erderaz "(un duelo) de guerrero a guerrero" baino. Giza-burruka edo duelo horretan, ordea, Erregeak aban-

taila handiarekin jokatu nahi du zazpi sarroin-horekin, eta zazpi sarroin hor zortzi gizon armatu baino gehiago dira...

Xarritton: *Gezurti Erregue, ez nuk oroitu ere,/ Martin Azantza, gudulariz gudulari,/ Nik dauzkiat zazpi sarroin hor.*

10
(A)
Sarroin horïq ez dagosu guizonari
Indatzu zazpi zaldun escutari
Eta cerori heyen guidari

(B)
Sarroin horik ez dagozu guizonari.
In datzu zazpi zaldun escutari
eta cerori heyen guidari..

—*Sarroin horik ez dagozu gizonari/ indatzu zazpi zaldun eskutari/ eta zerori heien gidari.*

Azken ahapaldi honetan bi transkripzioak berdintsuak dira. Xarrittonenetik dagoen diferentzia hauxe da: guk "dagozu" irakurri duguna Xarrittonek "dagoko". Beste aditz bati gagozkiola, indazu adizkiak objetu zuzen singularra adieraziko luke eta indatzu objetu zuzen plurala. Era horretara, *dagokizu* gurea *dagozu* bada, dagozkizu ez ote litzateke dagotzu izango?

Joan gaitezen, azkenik, esangurara. Zazpi txakur armaturekin mehatxatzen duenean Erregeak Martin Azantza, honen erantzuna zorrotza baino zorrotzagoa da. Zazpi txakur iltzedun botatzea ez dagokio gizonari, ez dagokio jaun bati, ez dagokio errege handi bati. Honelako zerbait esan nahi du Martin Azantzak: *Nahiago dut zazpi zaldun ezkutari botatzea zu zeu errege gidari zarela*. Zazpi gizon armatu baino beldurgarriagoak zirelako zazpi hor iltzedun edo sarroin hor. Erregeak egiten dion mehatxua gizon kaxkar eta ohoregabeko batena omen...

Sarroin horik, beraz, HOR- hitza partitiboan dela ulertu behar da ahapaldi hau. Bestela esan, *txakur iltzedunik ez dagokio gizonari...*

Xarritton: *Sarroin horik ez dagoko gizonari./ Indatzu zazpi zaldun eskutari/ Eta zerori heien gidari.*

AZKEN ONDORIOA

Bi balada transkribatu ditugu. Bi baladak, aski desberdinak badira ere itxuraz, bat bera dira funtsean. Bi baladetako bakoitzak, era berean, bi transkripzio ditu. Transkripzio horiek beren itzal-argiekin lan honetara ekartzea izan da gure jomuga. Zenbait kontutan oinarri sendoaren gainean ibili garela iruditu zaigu. Duda egin dugunean ere gure dudaren berri eman dugu. Hemen eman ditugun bi ereduak balada gutxirenduak edo deseginak dira, inolaz ere. Emakume xahar baten memoriatik erreskatatutako puskak. Puska horiek, beren ezerezean, dugun balada baten testigu bakarrak dira, oraingoz. Puska horiek ahalik eta ondoen ematea izan da gure asmo xumea.

OHARRAK

[1] Eskuidatzian *chateau* dator. Azentu zirkunflexua gurea da.

[2] Maiuskula gurea da. *Haspar* delako hau ez ote da *Hazparne* herri izenaren laburdura? Gu geu baiezkoan gaude.

[3] Halaxe dator lehenengo transkripzioan. Bigarrenean, behar lukeen bezala: lequel.

[4] Hona hitzez hitz erdaraz gure itzulpena: Especie de canciones copiadas bajo el dictado de una anciana mujer cuya memoria había retenido algunos jirones destrozados de canciones originales que debían ser interesantes aunque no tengan casi ni pies ni cabeza (lit. cabeza ni cola): ellas parecen tener algún valor como monumento histórico: ellas son ciertamente de la época que había todavía un rey de Navarra que tenía su palacio y su corte en Pau, y quizá, por otra parte, algunos castillos reales donde la corte podía trasladarse de vez en cuando.

La primera canción es la historia de la muerte de un señor de Zaldua de Haspar por la cual (sic) la reina habiendo tenido alguna atención, el rey le hizo matar por sentimiento de celos.

La segunda habla de la muerte trágica provocada por la misma causa de un señor de Ureta: lo que prueba que había hace tiempo en el País Vasco una casa o un castillo llamado Ureta: ¿Dónde estaba? Vete a saber…

El rey le hizo lanzar siete perros (dogos u otros). Desconozco lo que es s*arroina* o *samoina*. Había matado seis (perros) cuando una mujer del palacio le lanzó desde una ventana un cedazo de ceniza que le cegó los ojos, esto dio facilidad a un perro para que lo estrangulara…

[5] Jatorrizkoan ez dugu azentu zirkunflexurik ikusten.

[6] Hona hitzez hitz gure itzulpena:

Especie de canciones copiadas bajo el dictado de una anciana mujer cuya memoria había retenido algunos jirones destrozados de canciones originales que debían ser interesantes aunque ellas no tengan casi ni pie ni cabeza. Ellas parecen haber tenido algún valor como monumento histórico. Ellas son quizá del tiempo en que había un rey de Navarra que tenía su palacio y su corte de Pau, y, quizá, por otra parte, algunos castillos reales adonde podía desplazarse de vez en cuando.

La primera canción es la historia de la muerte de un señor de Zaldua de Haspar, por el cual la reina, habiendo tenido alguna atención del rey, le hizo saber por celos.

La segunda canción habla de la muerte trágica provocada por la misma dama de un señor de Ureta.

Lo que prueba que él había tenido ese tiempo en el País Vasco.

[7]Hona laugarren testuaren itzulpena:

¿En el País Vasco una casa o un castillo llamado Ureta? ¿Dónde estaba? Vete a saber. El rey le hizo lanzar siete perros (dogos u otros): no sé lo que es *sarroina* o *samoina*!

El había matado ya seis perros cuando una mujer del palacio por una ventana le lanzó un cedazo de ceniza que le cegó los ojos; lo que le facilitó al perro para que lo estrangulara.

[8] Hitz hau *jori* bezala ere dokumentatzen da. Leizarragak *heuragi* erabiltzen zuen, eta hortik bide dator ugari Mitxelenak dioenez. Ikus *Fonética histórica vasca* heuragi hitzean.

[9] Harrigarria badirudi ere, berdin gertatzen zen Azkuek transkribatu zuen Conde Flores baladan. Eskuidatzian *korte* idatzi arren Azkuek, argitaratzeko orduan, *gorte* ipini zuen.

[10] Mahaian hitz gordintxo edo gogortxoak esateko, adibidez, *mahaia salbauta* esan eta gordinkeria zetorren. *Salbu arima* edo *arima apartatuta* esapideek zein hedadura izan duten ikusteko, jo bedi *Orotariko* hiztegiko arima sarrerara.

[11] Berez, ez da dudarik *sarroin-hor* metafora formal bat dugu, sagarroiak bezala iltzeak dituen txakurra. Erderaz otso-zakurren lepokoari *collar de púas* deitzen diote edo *carlanca de mastín*. Era horretako lepokoaren berri izan nahi duen irakurle ikusmindunak jo beza *Ganadería y pastoreo en Vasconia*, Atlas etnográfico de Vasconia, Bilbao 2000, 554 or. eta aurrerakoak…

ASEL LUZARRAGA

Aitaren begirada

Jende artean zabiltza, zure jaramonik ezaz euren mesprezuzko begiradak itzultzen dizkiezula. Egunero bezala, parkeko bidea hartu duzu, lepoan daramatzazun liburuak zure burdinadun bota gorriak baino zama handiagoa direla. Egunean-egunean astunago egiten zaizkizun liburu madarikatuak. Alde batetik bestera ezertan erreparatu gabe dabiltzan gorbatadun gizonak ez dituzu gogoko, horregatik lurrera begira ibili ohi zara, walkmana ahalik eta altuena ipinita, "oi" oihuak zure belarriak zulatzen. Baina zerbaitek deseroso sentiarazten zaitu, beste gauzek baino areago. Kokotean igartzen dituzun inurri moduko batzuk, zure ile apurra jaten edo –lagunek mila aldiz esan dizute *look*a aldatzeko garaia dela, kaletik hainbeste ez nabarmentzeko, baina zuri gehiegi gustatzen zaizu zeure betiko itxura, hiriko punkekin istiluetan sartzeko deia bada ere–, eta azkenean tamarindoaren azpian dagoen bankurantz bihurtzen duzu burua, ziztadaren bila.

Txakurraren putza. Hor dago arlote madarikatua. Txistua botatzeko ideiak zeharkatzen dizu burua, baina, zergatik ez dakizula, korapiloa egin zaizu urdailean, eta urratsa azkartzea erabakitzen duzu. Bai, begiak zureetan iltzatu dira, nazkaz. Ez, agian ez da nazka. Seguruenik azken mozkorraren ajea baino ez du izango. Baina egingo zenuke, hori bai, zureetan iltzatu direla. Agian izuaz. Baina begi haietan, inoiz baino gehiago, zure aitarenak ikusi dituzu. Aspalditik gertatzen zaizu, eta ez diozu garrantzi handiagoa eman nahi. Azken finean, gaitzesten duzun jendearen aurpegietan beti ikusten duzu zeure aitarena, ezagutzera iritsi ez zaren aita horrena.

Berriro zure ondotik igarotzen den jendeari begiratzen diozu. Lanerako haien bidea instituturako zurea bezain luzea izango da? Hamar minutu oinez munduko ibilaldirik luzeena izan daiteke, zain dagoena irakasle alu talde bat denean. Zein apainak, zein ondo orraztuak negozioei ondo ekiteko. Bai, zure aitaren aurpegietan haiengan ere ikusten duzu, agian orain ez hain nabarmen, kontraesana badirudi ere. Kontraesana, zure aita enpresa gizon horietariko edozein izan daitekeelako. Edo ez. Ama eta biok laga egin zintuztenetik, zuk artean titiari baino heltzen ez zenionean, urrun bizi ei da. Ez zen geratuko txerri hura zuen miseriak ikusten, hain gutxi axola diozue eta. Pena da haren aurpegia ez ezagutzea. Amak ez dizu inoiz argazkirik erakutsi nahi izan. Ezagutu nahi zenuke galdera batzuk egin ahal izateko, bai.

Institutuko harresia. Nazka eginda zeharkatzen duzu patiora ematen duen alboko sarrera. Hor dituzu lagunak. Hain aldatuta, itxuraz, baina hain berdinak buruetan. Orain bakailao musika entzuten dute holako diskoteka madarikatuetan, garestiago jantzirik. Gazte ondo apainduak, eta zu haien

benetako izaera salatzen duzun bakarra. Zergatik ezkutatu behar zeuen esbastika boteretsuak? Ados, hori da onartu duzun aldaketa bakarra garai "berrietarako".

–Aupa, Doitxe, inori haginka egin behar, ala –Irriren agurrak eguneko lehenengo irribarrea atera dizu–. Uste dut honek guk beste gogo duela klaserako. Esaiozue ea animatzen den.

Piluk (Pilulak) azaldu dizu zuk ulertzeko era errez baten gaurko material hona dagoela. Beraz, beste sasieskola batek ez dizu txarrik egingo. Tximiren garajera joan, eta han haxisaren kea vodkarekin nahasten da zainak erre eta pizten. Amak prestatzen duen kafea baino bide hobea egunari hasiera emateko. Baina badakizu Piluren lehengaia hori baino gehiago dena. Guztiok behar duzuena taldeak ematen dizuen ausardia sendotzeko. Dena dela, ondo dakizu lehengairik eraginkorrena arrats parterako gordeko dena ere, iluntzerako, alegia.

Momentuz, burua ostuten dizuen musika astunak, belarriak astintzen dizkizue bere erritmo aldaezinaz, billarretan eguna jaten duzuen bitartean. Beste vodka bat, limoiarekin oraingoan, beste kanuto bat. Eta zikloa errepikatzen da base erritmikoa baino gehiago.

Azkenik Piluk guztiak bildu zaituzte. Ordua heldu da. Kanpoko iluna deika dabilkizue.

–Izardun pilulak izarretara igotzeko, mutilak. Labetik irten berri-berriak, eta topatu ahal diren onenetakoak. Kaleko jabeak izateko prest?

Eskuin besoak altxatzen dira modu adierazgarrian, batera oihu kidea eginik. Badakizu, bilatzen duzuena eridenez gero, lagunek zure bota buru hausleak eskertuko dituztela. Gupidarik ez. Amak esana, mundua ez da ahulentzat egina.

–Nora, orduan? –Matxinek.

–Okupek gaur kontzertu antifaxista dute. Labanak prest gangar eta txima batzuk mozteko?

Baina guztiok dakizue Tximiren ideia txoroa dena, bost baino ez izanik. Beste plan bat bilatu behar, ilunaldea emateko. Pilulak euren lana egiten doaz. Batzuk hasi dira elektrikoki mugitzen, gorputzak eskatuta, eta ekintzarako premia gero eta larriagoa da. Piluk lortzen duen lehengaia primerakoa da, eta aurretik alkohola edanda ere ez dago arrisku handirik. Baina honez geroztik ura baino ez duzue edango –hori bai, diskotekan sartuz gero, sarri baino sarriago. Batbatean, lagunen ideiarik ezean, irudi batek tximista batek bezala jotzen zaitu buruan. Orain badakizu zergatik ezinegon hura.

–Doitxek zerbait daukalakoan nago –bai, Piluk ondo ezagutzen zaitu.

Zenbat aldiz ez dituzu, bada, arlote horren begiak ikusi? Egingo zenuke leku guztietan topo egiten duzula berarekin, egunez zein gauez, zure mugimendu guztiak balekizki bezala. Beti begi ilun, triste horiek zure bizkarrean sartuta, zerbait eskatu nahi balizute bezala. Hainbestetan zure zama astunago bihurtzen duten begi ardotan mindu haiek. Ez diezu inoiz ezer aipatu zure lagunei, agian gupida ematen zizulako, begi haiek min oso zahar bat gordetzen zutela ematen duelako, eta horrek zurekin kidetzen duelako. Baina odolak odola eskatzen dizu, eta harena hain da erreza... Mundua indartsuentzat, bai!

Berehala azaltzen diezu non ehizatu txiro madarikatu hura, hiriko parke ederra bere

izate hutsez zikintzen duen zorrizto jaiotzerik ere merezi ez zuena. Besteentzat ez dirudi hain harrapakin handia, baina erreza bosten artean ikaraldi eder bat emateko. Batzuen hitzek besteenak berotzen dituzte, eta azkenean ehiztari taldeak garaipen eginaren deia entzun du.

Gauak ez dizkizu lanak zailtzen, eta kaletik dabilen jende apurrak bidea egiten dizue. Berehala zarete zure etxetik etxadi bi harago dagoen parkean. Hortik paseatzen dabilen kaikuari pit-bulla askatzea bururatzen ez bazaio, behintzat, lan erdia eginda dago. Ez, jendea ez da ausarta zuen aurka. Tamarindoa ez da aterpe zure botengandik ostentzeko. Lagunen ukondoak burdinetan biltzen dira, baina zuk esku hutsean egin nahi duzu. Arlotea ez dago lo, eta berehala ikusi zaituzte bereganako bidean. Baina mugitu ere ez da egin, haren begiak zureei lotuta. Eta ibiltari bakarrak ospa egin du, jakina. Bankutik bota eta ostikoka hasi zaretenean ere ez du zirkinik egin, ezta burua babestu ere. Minak bilduta, buruari gora eusten dio, haren begiak zure aldetik aldentzen ez direla. Odola zabaldu da behearen gainean, eta ahalegin bakarra zerbait esateko izan da, entzutera iritsi ez zarena. Boten burdinan zure amorru eta gorroto guztia doaz, lagunen adore bakarra bezalaxe.

Arlotea ez da gehiago mugitzen, ezta hatsik bota ere, begiek zabalik dirautela…

Goizeko hamaikak. Ama saiatu da instituturako zu altxatzen, baina pikutara bidali duzu. Burua lekutik atera nahi zenuke, ondoeza uxatzeko. Sukaldean zaude, ura edaten, txirrinak jotzen duenean. Atea ireki eta poliziaren uniformeak ikararen ikaraz utzi zaitu. Hasi zara gogoratzen. Zuri geratzen zara, margulago egotea posible bazen. Bai, uste duzu arlotea hilda geratu zela, baina zelan aurkitu zaituzte hain azkar? Bihotza lokietan sentitzen duzu bakailao musikaren erritmoan burua zulatzen. Baina ez duzu burdinarik sumatzen zure eskuak lotzen…

Ez duzu oso ondo ulertzen, baina beste hitzen artean "aita" entzun duzu, eta berehala argazki bat utzi dute zure eskuetan. Bai, zalantzarik ez: hilda agertzen den gizona arlotea da. Sentitzen dutela dio agenteak. Amari begiratu diozu, zerbait ulertu nahian. Lainoa itxiegia.

–Gertatu behar zen. Ondo egin nuen alproja hura etxetik bidalita eta zugana hurbiltzea debekatuta. Begitu zer bilakatu zen alu alaena… Ez begiratu horrela, seme, ez dizut mila aldiz esan mundua ez dela ahulentzat egina? Zelan utziko nion zu bera bezalako pertsona bihurtzen, guztiari baietz esaten baino ez zekien kaiku horri? Barkatu egia osoa esan ez banizun.

Poliki-poliki zeure mundua zatika jausten sentitzen duzu, dena zulo beltz batek irentsirik, dena zentzurik gabe…

JON AREGO

Alvaro Cunqueiro olerkaria

Galiziako literatura beti izan da goi mailako idazleen habialekua. Batera zein bestera, prosaz zein olerkiaz, gailego hizkuntzaren zizelkariek aspalditik nabarmendu dute behinolako literatura baten aintzinatasun loriosa eta gaurkotasun esanguratsua.

Apartera joan gabe, XX. mendeko literaturaren orrialdeetan, galegoz eta gaztelaniaz, badira izen franko, aipatzeko eta azpimarratzeko modukoak. Horien artean, Alvaro Cunqueiro (1891-1981) idazlearena, prosaren bidez orri ahaztezinak burutu zituena, irakurle ororen gozamenerako. Haren berri, esan gabe doa, ondo sustraituta dago galiziar literaturaren eremuan.

Prosa ez ezik, olerkia ere landu zuen Cunqueirok eta horren erakusle, bost liburu argitaratu, haren luma fin eta zorrotza, samur eta irudiz beterik datorkigula horietan.

Hartara, *Mar ao Norde* (1932), *Cantiga nova que se chama riveira* (1933), *Poemas de sí e non* (1933), *Dona do corpo delgado* (1950) eta *Herba aquí ou acolá* (1980) ibilbide luze baten pauso argigarriak dira.

Duela bi urte, liburu horietako olerkiak tankera elebidunean (galegoz eta gaztelaniaz) argitaratu dira, Vicente Araguas eta César Antonio Molinaren ardurapean[1]. Haien hitzetan esateko, liburu horiek bost adibide desberdin dira, hain zuzen ere, ikuspegi askodun olerkari batenak. Hark –hala esan ohi da– kontzeptuan eta are keinuan ere, literatura oso bat zuen barnean.

Euskal irakurlearentzat ohargarri izan daitezkeelakoan, hona hemen liburu horren poema batzuk, galegoz eta euskaraz, esanaren argigarri.

[1] A. CUNQUEIRO (2003): *Poesía en gallego completa*. Prólogo: Vicente Araguas. Traducción: Vicente Araguas eta César Antonio Molina. Visor Libros. Madrid.

PORTO (*Mar ao Norde*, 1932)

1

SOL:

Cinco fiestras colgadas
da mesma alba rosa:
vivas,
intactas,
núas,
con arelas de mans,
coma espellos de mastros.

SOMBRA:

Cinco fiestras colgadas
da mesma alba turba:
quedas,
chás,
duras,
sin afáns de presencia,
sin afáns de fuxida.

SEMPRE:

Cinco fiestras: soio

2

Sin que nadie o soupera

houbo un intre puto
no que nada houbo.
Agora,
na palma da agóa,
da sombra o fruto do instantiño aquel.

PORTUA (*Mar ao Norde*, 1932)

1

EGUZKIA:

Bost leiho zintzilik
goizalde lauso beretik:
biziak,
ukitugabeak,
biluziak,
eskuen egarriz,
itsasmasten ispilu legez.

ITZALA:

Bost leiho zintzilik
goizalde nabar beretik:
isilak,
lauak,
gogorrak,
nabarmentzeko gogorik gabe
ihes egiteko gogorik gabe.

BETI:

Bost leiho: soil-soilik.

2

Inork ere jakin gabe

izan zen une garbia
deus ere izan ez zenean.
Orain,
eskuaren ahurrean
itzaletik une haren emaitza.

ÚLTIMA ELEGÍA (*Dona do corpo delgado*, 1950)

A Manoel Antonio

Diríamos que pedra para a tua fronte fría
–para a tua alma mar e vento duro.
Ti sí poeta, fenecido de algas verdes
O teu único corpo, silencioso e breve.

Agora escoita ehí, nese outro lado,
onde ás mareas e a Deus e á sombra toda
coma o Norés se repite, fondo extrano,
viaxeiro antergo, gueivota no teu sangue.

Nós non choramos. Finalmente tristes
desconsolado ouvido inacabábel somos.



AZKEN ERESIA (*Dona do corpo delgado*, 1950)

Manoel Antoniorentzat

Esan genezake harria zure bekoki hotzarentzat
–zure arimarentzat itsas eta haize gogorra.
Zu bai poeta, ohaldi berdeetan hila
zure gorputz bakarra, isila bezain laburra.

Entzun ezazu orain, hortxe, beste alde horretan,
non itsas gorabeherak, Jainkoa eta itzala bera,
Iparrekialdekoaren antzera, behin eta berriro datozen,
hondo arrotza, antzinako bidaiaria, zure odolean kalatxoria.

Guk negarrik ez dugu egiten. Mindurak joak,
azkenean belarri samindu amaigabea gara.

SEBASTIÁN GARCÍA TRUJILLO

Biziminaren ziklo osatua

1. Bitoriano Gandiaga, idazle existentzialista

Bitoriano Gandiaga olerkaria izadiarekin lotzen dugu, bere burua *Elorri* batekin berdindu zuelako[1]. Gizartearekin ere lotzen dugu, *Hiru gizon bakarka* poemategian bere burua Euskal Herriko gizakiekin berdindu zuelako. Erlijioarekin ere lotzen dugu, olerkaria fraide izan zelako eta erlijio gaiaz olerki asko idatzi zituelako (Arantzazuko Andra Mariari eskainitakoren batzuk ederrak baino ederragoak). Iritzi hori zuzena dela uste dut. Zuzena eta logiko samarra: *Elorri* eta *Hiru gizon bakarka*, zein baino zein, BGren libururik adierazgarrienak baitira. Dena dela, BG izadi-, gizarte- edo erlijio-olerkiekin identifikatzea edo berdintzea irizpide mugatua dela uste dut. BG askoz idazle poliedrikoagoa da. Arantzazuko dorreak bezalakoa, hertz askoduna.

Izadi, Gizarte eta erlijioari buruzko gaiez gain, beste gai batzuk ere landu zituen BGk: bidaia-gaiak (*Uda batez Madrilen*), gai autobiografikoak (*Denbora galdu alde*), herri-gaiak (*Gabon dut anuntzio...*), eta abar... (unea aprobetxatu nahi nuke *Denbora galdu alde* liburuaren garrantzia azpimarratzeko. Nire ustez, liburu honek ez du lekua galtzen *Elorri* eta *Hiru gizon bakarka*ren parean).

BGk landu zituen gaien artean badago, haatik, gai berezi bat, azpimarragarria dena: denbora edo existentziarena. Eta azpimarragarria hiru arrazoirengatik: lehenik eta behin, gai honek olerkariaren arreta handia bereganatu zuelako, hain arreta handia ezen existentziamina BGren gairik inportanteenetarikoa izan zela esan ahal baitugu[2]. Bigarrenik, BGk jarrera *berezia* adierazi zigulako existentzia-minaz aritu zenean (sinesmenaren eta existentziaren minaren arteko zein harreman mota?). Hirugarrenik, zelan erlazionatzen da BGrengan bere buruarekiko existentzia-mina eta Euskal Herriarekikoa?

Hiru arrazoi hauez gain, badago, oraingo honetan, 'Bitoriano Gandiaga idazle existentzialista' gaiaz jarduteko beste motibo bat. Durangoko azokarako BGk argitaratu gabe utzitako olerki multzo handi bat argitaratu dute Arantzazuko frantziskotarrek, Elkar argitaletxeak eta Labayru Ikastegiak. Olerki multzo berri honetan gairik gehienak errepikatuak zaizkigu: izadia, erlijio, euskal gizartea... baina existentziarekiko (norberaren existentziarekiko) argitaratu gabeko olerki multzo eder bat eskaini digute argitaletxekoek, BGren existen-

tziarekiko harreman mindua aztertzeko bidea zabaldu diguna. Puntu hauen azterketan arituko naiz hurrengo lerroetan.

2. Existentzialismoa zer den eta existentzialisten pathosaz

Sakonean sartu gabe, alde bitatik hurrera gaitezke existentzialismora: idazkien *edukia*ren aldetik eta idazle edo *subjektu* existentzialisten jarreraren aldetik. Ez naiz luzatuko ez lehenengoan ezta bigarrenean ere: batetik, artikuluaren luzerak uzten ez didalako, eta, bestetik, hau ez delako nire idazlanaren helburu nagusia. Dena den, uste dut argigarri dakigukeela zehaztea, laburrean bada ere, bai existentzialismoaren edukia, bai existentzialisten bizitzarekiko jarrera ere, horiexek baitira BGren existentzialismoaren oinarriak eta xehetasunak argi diezazkiguketenak.

- Existentzialismoaren edukiaz, argigarria zaigu, J. Ferrater Moraren hiztegitik ateratako honako definizio hau: "Se ha intentado a menudo definir 'existencialismo' sin que se haya encontrado una definición satisfactoria (entre otras razones, porque en cuanto 'actitud existencial', rehuye cualquier definición). A lo más que se ha llegado es a subrayar ciertos temas que aparecen muy a menudo en la literatura filosófica existencialista y paraexistencialista. Estos temas son, entre otros, la subjetividad, la finitud, la contingencia, la autenticidad, la 'libertad necesaria', la enajenación, la situación, la decisión, la elección, el compromiso, la anticipación de sí mismo, la soledad (y también la 'compañía') existencial, el estar en el mundo, el estar abocado a la muerte, el hacerse a sí mismo"[3].
- Arrazoiaren oinarria galdu (giza arrazoiaz mesfidatu) duten pentsalari existentzialistengan habia egiten dute gizakiok, arrazoia baino barruragoan, sumatzen omen ditugun beste sentipenen batzuk[4]: a) giza eta gizarte-enigmak askatzera (azaltzera) iristen ez den gizakiaren definizioari buruzko *anbiguetatea* edota *absurdoa* (Kierkegaard); b) bermerik gabeko *larritasuna*; c) norabiderik ezaren *egonezina*; d) helbururik gabeko *goragalea (Sartre)*... Sentipen hauek guztiok halako ezkortasun edo pesimismo bat sorrarazten dute gizaki askorengan (gizaki 'existentzialistengan', bereziki).

Existentzialismoaren ezaugarri bi hauek irudi batean bil ditzakegu: Sisiforen irudi zein alegian. Gizakiok, Corintoko errege horrek bezala, existentziaren zama jaso behar dugu, eguneanegunean eta bizitza-mendi tontorreraino, ezezagun zaigun bide-zidorretik usu. Giza askatasunak dakarzkigun mugaketengatik (zer aukeratu? zelan iraun bide zuzenean?...), ez dugu, inoiz ere, tontorreraino iristea lortzen; harria beti jausi egiten zaigu mendi oinetaraino... eta, hurrengo egunean, ohetik jaikitzen garenean, bizitzaren zama altxatzerakoan, badakigu zenbaitzuetan (askotan ote?) desleialak izango garela eta ez ditugula, inoiz ere, gure helburuak beteko. Alferrikako grina, beraz, gizakiarena... tristura, goragalea. Absurdoagorik inoiz lortuko ez dugun zerbaiti ekitea (ekin beharra) baino?

3. Bitoriano Gandiaga gizaki mindua

Bitoriano Gandiaga berez kezkatia zen, urduria, guztiz sentibera eta tristurara makurtua[5]. Honez gain, behartu zuten (berak aukeratutako) lur (hizkuntzaz eta hezkuntzaz) arrotze-

an bizitzera: baserrian zoriontsua zen mutiko euskalduna, (greco eta latino more) moldatutako ikasketak eta biziera bizi behar izan zituen komentuko murru estuetan (era askotako hertsidura: errigorismo kutsukoa). Hazkuntza-likido honetan ez da batere arraroa literaturaz liluraturik geratua zen seminarista eta abade gazte hura existentzialismoaren itsasertzetan enkailaturik suertatzea. Dena dela, gizarte-olerkigintzan suertatu zitzaion bezala, BG idazle existentzialista izango zen, 'bere modura' baina[6].

4. Bitoriano Gandiagaren existentzialismoaren erak eta etapak

Bitoriano Gandiagaren literatur idazki guztiak blaitu zituen existentzialismoan hiru etapa bereiz ditzakegu: 1.a, *Elorri* liburukoa (1962); 2.a, *Hiru gizon bakarka*koa (1974), eta 3.a, BGren azken urteetakoa (1981-1985az gerokoa). Etapa hauek seinalagarriak dira eta ez dira guztiz estankoak, gizakien bizitzan gertatzen diren gorabeheraren (aurrera-atzeraren) araberakoak baizik, are gehiago gizaki existentzialistei buruz berba egiten ari bagara: existentzialistak animu gora eta beherako aldaketetan guztiz sentiberak izaten baitira. Hirugarren etapako 'existentzialismoa', esaterako, diseinatuta zeukan BGk *Artasoko Salmuak* idatzi zituenean (1969-1974). Diseinatuta bai, baina 'haragi' bihurtuta ez, antza; eta urteak igaro behar izan zitzaizkion harik eta Artasoko intuizioak mami bihurtu zitzaizkion arte. Eta *Denbora galdu alde* (1984) kronologikoki hirugarren etapako lehen urteetan agertu zen, nahiz edukiari begira, bigarren etapari dagokion hirugarren etapari baino gehiago.

➢ Lehen etapa, J.M. Lekuonari anti-epopeia iruditzen zaion *Elorri*koa da, non "gizonaren zoritxarraz, bizitzaren ulerteziñaz eta eriotzaren tajugabeaz mintzo baitzaigu"[7]. Olerkari gaztea zen, 30 urte bete gabekoa, eta jadanik 'giza-bizitzaren auzia' drama bezala sentitzen zuen:

> Betiko jardun baten
> Nekea daroak:
> Ezagun nau gogaitak
> Etsipen lagun jat.
> ...
> gehiago bat gura dot
> gaitz aundiko griñaz. (*Elorri*, 159-170. or.)

Etapa honetan nabariak dira BGren existentzialismoaren zenbait marka, zeinetatik batzuen batzuk indartuko baitzaizkio geroagoko poemategietan; besteren batzuk, ostera, lausotuko.

Labur-laburrean honako marka hauek nabarmenduko nituzke BGren gaztaroko existentzialismoan (irakurlea ohartuko denez, atal honetako lerro batzuetan J.M. Lekuona zait ez nolanahiko gidari).

–Lehenik, BGk ez zuen, idatzi zituen poemategietan, existentzialismoa *gai bakartzat* inoiz hartu. Erresonantzia askodun olerkaria (gizakia) izan zen BG. *Elorri*n, esaterako, honako sintonia hauek topatu ditu J.M. Lekuonaren belarri finak: "Funtsean, eta ume-umetatik datorkiona, *sentiberatasun telurikoa* litzateke, lurrareriko atxikimendu guztizkoa. Eta honen kristau bertsioa den *frantziskanismoa*, berau esperientzia erlijioso egina. Eta gero, gerrondoko denboraldi zailetan eta behartsuetan bizi ginenez, *etikazko jarrera* zuzena eta bihotz zabalekoa. Teluriaren, frantziskanismoaren eta berrogei eta hamarreko hamarkadako joera etikoaren koordenadatan irakurri beharko litzateke poema oso hau. Hala ere, obraren *exis-*

tentzialismoa da azpimarratu nahi genukeena". Iritzi berekoa zaigu BG bera: existentzialismoa bai, beste giza joera nahasian: "*Elorri* idatzi nuenean, nire poesia sinbolista zen, pertsonala, barrukoa. Naturako gauzak poetikoak ziren, maitakorrak, ametsgarriak. Gelditasunezko poesia zen, aszetika-mistika norberekoi bati lotua, tonu apalekoa. Apur bat existentzialista ere bai. 1960.erako idatzia neukan *Elorri*"[8].

Tematikaren aldetik nahaste bera errepikatuko da BGren beste poemategietan ere: *Hiru gizon bakarka* gizarte-olerkia da, baina, ikusiko dugunez, ez dira poema existentzialistak ere faltako, ezta, guztiz existentzialistatzat jo ezin ditugun *Denbora galdu alde*an, ez *Ahotsik behartu gabe*an, ezta *Adio*n ere.

–Bigarrenik, BGren *Elorri*ko existentzialismoa existentzialismo *berezia* da "sentiberatasunetik eta jarreratik (sortua) gehiago gaietatik eta filosofiatik baino"[9]. Bihotzetik, maitasunetik, alegia, gizakienganako kupidatik sortuagoa norberaren buru-kezkatik baino[10]: "Gerrondoko umea zen Gandiaga, gerrondoko mindurak erresumindua. Eta ikasirik zeukan ongi sufrikizunaren egia biluzia, honen mezua eta honen erretorika bortitza, bazekien nor zen, eta maite ere zuen, gizona"[11].

–Hirugarrenik, gizakiarenganako (norberaren buruarenganako) kupidaz gain, beste marka berezia izaten zuen BGren lehen etapako existentzialismoak. Bizitzarekiko mina sentipenik nagusia izanik ere, ez zen absoluto bat, orekatuta nahasten zitzaion honako beste bi sentipen hauekin: *sinesmena*, batetik[12]:

ATSEKABEAk asko
baiñan, irri ori?
Zelan darabilkezu
irri ori, beti?
Jauna serbitzearen
gozoa bazenki
ez leustazu egingo
itaun ori, noski. (153. or.)[13]

eta *bizitzaren alde pozgarriak*, bestetik, elorri sinbolopean (lore zuriak...) agertzen zaizkionak:

Lore txikarrak ageri dira
Nire arima zaarrean.
Arima lore txikiz
elorri-zotz bat lez,
bideko lagun eder
egur zaarren amorez,
dar-dar,
leiar. (35. or.)

"Esistentziaren latzak, lakarrak, gogorrak kontrapuntoan darama argia, lorea, saltoa, irrintzia. Etsipenak irauzi baino lehen, hor dator berriro itxaropena, susperraldia. Ziklikotasunean zabalik uzten dio poetari erroturik bizitzeak dakarren aldian-aldiko eramanpena, Baina hor dago udazkena ere"[14].

➢ BGren existentzialismoaren bigarren etapa, *Hiru gizon bakarka*koa da. Dakigunez, poemategi hau krisi baten ondoren idatzi zuen BGk. *Elorri*ren biguntasunagatik (nitasunagatik ere) hartu zituen kritikek mina eragin zioten BGri, hainbesteraino ezen berriro ezer ez zuela idatziko (argitaratuko?) erabaki baitzuen. BGren paperak aztertuz gero, haatik, argi dago handiagoa zitzaiola idazteko grina, etsipenez edo, isilean geratzeko lotsa edo erabakia baino. Isilaldi luze hartan BGk idatzi egiten zuen, asko gainera, eta ez zituen olerki guzti haiek sakarrontzira bota edota izarretan erre.

Hala eta guztiz ere, olerkiren batzuk berriro argitaratzen hastea erabaki zuenean (*Hiru gizon*

bakarka 1968-69an idazti eta 1974an argitaratu zuen) olerkaria ez zen lehengoa bera, *Elorri*rena, alegia, ezta bere existentzialismoa ere. Oteizari Arantzazuko aurrelizaren proiektuarekin gertatu zitzaion bezala, mutualdiko urteak ez zitzaizkien artista bioi alferrikakoak izan. BGren existentziarekiko mina gogortu egin zen urteak igaro ahala. BG gizondu egin zen, ez soilik urtez, existentziarekiko erlazioaren aldetik ere bai. Ez da oraingoa, nahi eta nahiez, bizitzan esperantzaren zirrikituak antzematen zizkion *Elorri*ren idazle gaztea. Aldakuntzaren (hobekuntzaren) ortzmuga urrun(egi) ikusten zuen BGk. *Hiru gizon bakarka*ren idazleak badaki bizitzan zehar pairatzen dituen arazoen artean bat ere ez zaiola guztiz konponduko. Esperimentatzen hasi zen biziaren-muga laburregia zitzaiola oinarrizkotzat jotzen zituen arazoak (pertsonalak zein herriarenak) aske ikusteko. Eta halaz ere lanean jarraitu behar? Zein gogoz?

Hori guztia dela eta, etapa honetako BGren existentzialismoak lehenagoko etapakoarekin desberdintasun nabarmenak ditu.

–Lehenik, etapa honetan, ez dizkiote olerkariari ez sinesmenak ezta bizitzaren alde baikorraren kontrapisuak ere ematen existentziaren zauriak bigun edo jasangarri bihurtzeko. Etapa honetako existentzialismoa gordina zaio BGri: Nahi eta ezina:

> Baina aurrera.
> Behar bada,
> gure azken helburua
> hauxe izango da:
> nahi dugun ezinagaz burrukatzea. (125. or.)

- *Hiru gizon bakarka*ko sinboloek (txakolina[15], xardina zaharra, txori kaiolatua, erregeren profeten profeziak edo handikien arrazoiak, arrakalak dituen potintxoa, uholdea, motozerra, lurruntzen doakigun euskal osina, agortzen...) ez dute *Elorri*k noizbait loratzen zuen esperantza adierazten. *Hiru gizon bakarka* poemategia ilunagoa da (Dena bukatu da, 157. or.), *Elorri* zuri gorria baino.

> Desilusio usain bat
> erten omen da leihotik (105. or.)

- Sinesmenaren beste aldean esperantza ere ilundu egin zaio BGri:

> Jadanik muga hontan
> izarrek ez dinoste
> pozezko berbarik;
> fede ilunaren argi
> iluna dot bakarrik
> eta itxaropenaren
> itxaropen-eguna
> oraindik ilun dago.[16]

*Hiru gizon bakarka*ren irakurlea laster ohartzen da *Elorri*n ugariak ziren Jainkoari (Andra Mariri) erreferentziak olerkari helduak ekiditen dituela. Askozaz testu laikoagoa da *Hiru gizon bakarka Elorri* baino. "Fedea modernotasunaren barruan bizi zuen. Hori dela eta 'hiriko sufrikarioak ezin hobeto' bizi zituela uste du J. Intxaustik"[17]. BGk ez du, giza-existentziaren gauean, (fedearen) abantailaz jokatu nahi eta 'modernitate aroko santarik handiena ote zen'[18] Teresita Lisieuxkoak bezala, sinesgabekoen mahaian jesarri nahi izan zuen ondorio guztiez[19].

Sinesmen baliabideari uko ekitea ez zen BGren kasuan 'pose' edo jarrera erretorikoa, errealitate gordina baizik, eta angustia edo iluntasun hori gehien maite zituen arloetan gauzatu zitzaion: a) euskal errealitatean: "Ez dakit esperantza nondik urratu"[20]; eta b) Jainkoaren izaeraren ondorioa den giza gorabeheretan ere bai:

ORAIN ARTE BANAIZ eta, banaizela paper hontan nahi dut idatziz, azaldu, duda-mudatatik irten nadin ere. ... Banaizen ustezko kredo hau ez dakit noiz artean ahalko dudan baieztatu, ezbainaiz sentitzen luzaroko ere. (*ABG*, 140)	Sinesten dut, baina urrun dago, lekutaren ostean poza. Sinesten dut, baina ezin dut, inondik eta inola piztu pozaren argirik. Otoitz dagit, aieneka dagik otoitz: 'egin bedi zure borondatea' eta etsi nahi dut baina hau goragalea! (*DGA*, 124-125)

–Bigarrenik, esan berri dugunez, etapa honetako existentzialismoa adar biko munstro (arbola hobeto?) bezala nagusitzen zaio BGri: Euskal Herriarengana(gandi)ko mina, batetik, eta bere buruarekiko mina, bestetik[21]. Zein baino zein handiagoa, zein baino zein urragarriagoa?

Oraintsu arte genekizkien datuen arabera (*Hiru gizon bakarka*, *Denbora galdu alde*...), Euskal Herriarengana(gandi)ko mina zen BGren min-ahalmena ia toperaino bete zuena:

Galduta nabil herriazko
bidarte nahasi batean;
ta ez dakit nondik jo,
nora jo behar ote dudan.
Nahi itsu batek
–agian ezinen harek–
zirikatu narama
ta, banago
derizkiodan non-nahitik
aurrera egitekotan,
zirt edo zart, norabait,
neugandik nahia,
nahiz neugaz batera,
eror dadin. Herririk
ez baneuka, sikera,
bizitzako zalantzak
ez neukez hain latzak. (*HGB*, 122. or)

Hain handia zitzaion BGri Euskal Herriarenganako (Herriarengandiko) mina, hain lehenagokoa zitzaion *Herria* bere burua baino, ezen ezin baikenuen pentsatu ere egin hutsune nahikorik geratzen zitzaionik bere burarekiko minerako. Orain argitaratu berri diren olerkietan, haatik, nabaria da BGk Euskal Herriarenganako min gorriaz gain (BGren min nagusia, duda handirik ez), bere buruarekiko min gogor luzea ere eraman behar izan zuela (ez txikia, gainera):

Denbora badoakit
Urtez urte ahitzen,
Ez dakit zenbat legez
Zaidan gelditzen.

Gauzak geroko uzten
Mainatua nintzen,

Bada jada gerorik
Ez baitut aditzen,
Hasi naiz larritzen,
Estutzen, etsitzen,
higuinez okitzen,
nahasduraz horditzen,
lasaibiderik asko
ez dut aurkitzen.[22]

"Munduko martxa segitzen duenak mila kezkatarako bide bertan badu. Ze hemen alferrik ez dugu iñork bizi gura. Bizi nahi dugu integratuta munduaren martxan eta munduko gorabeherekin eta abar. Eta enteratzen gara honezaz eta harzaz eta haruntzagokoz, baina gero ezin ditugu barruan egosi, eta ez zaizkigu kabitu ere egiten, eta aurkitzen dugu ezina eta nahia, eta ezina eta nahia, eta ezin horren bitartean geratzen gara zizko eginda"[23].

–Hirugarrenik. Hauez gain, BGren kasuan ezin ditugu guztiz bereizi Euskal Herriaren mina eta idazleak bere buruarekin duen mina. Ez dira konpartimentu estankoak, edontzi komunikatuak baizik, ezin baitzaigu (omen[24]) herriko baxuengandiko mina benetan sufritzea, herri min horrekin kutsatu gabe: "Gainera *Elorri*-ko (SG, are nabarmenago *Hiru gizon bakarka* kasuan) *ni*-a, ni-neua baino zabalagoa da: gizateria izaterainokoa, baina ez abstraktuki hartua, neugan errotua eta pertsonatua baino. Eta, beraz, denbora guzti haren *ni*-a"[25].

Ez da erraza zehaztea noiz hasten den BGren existentzialismoaren hirugarren etapa. Aurretik atzera jotzen badugu, 2002 urtetik... 1985erantz, alegia, asmatzeko probabilitate gehiago dugu, atzetik aurrera bagabiltza baino, bere bizitzaren azkenengo urteetan nabaria baita BG existentzialismo berri batera iritsia zela. Noiztik baina? Muturra 1981-85 urteetan ipini dugu, orientazio modura, infartu bat izan eta psikiatrak BGri 'denbora galtzen ikasi behar zuela' agindu zionean. Baina, segur aski, geroago hasiko zitzazkion BGri bere existentzialismoaren azkenengo etapa honetako markak mamitu eta nagusitzen.

Hirugarren etapa honetan, BGren existentzialismoa *bitxia* da (noiz ez BG tartekoa delarik?[26]). Existentzialismo 'gazi-gozo' dei geniezaioke etapa honetakoari. Egia da gazi-gozotasun horretan *sinesmena*k zeresan handia izan zuela[27]: "Amo la vida intensamente... pero tampoco estoy desesperadamente atado a ella, porque de este modo o de otro, de otro más feliz, pienso seguir viviendo y disfrutando en Dios por los siglos". Baina, sinesmenaz gain, existentziaren *biziera* berria ere garrantzi handikoa izan zitzaion BGri. "Gazi-gozo" hitzez, BG existentzialismo orekatu batera iritzia zela adierazten digu: existentzialismo heldu batera, alegia, zeinetara, arrazoi batengatik edo besterengatik, ez baitziren existentzialista asko iristen. Hori dela eta, etapa honetako existentzialismoa interesgarria zaigu, ez soilik sinestedunoi, bizimina (goragaleraino?) edo zentzua ikuspegi diferente batetik (edertasuna, solidaridadea...) eramaten saiatzen diren sinesgabeei ere bai.

–Lehenik eta behin, Jainkoarekiko edo gizaexistentziarekiko axola (moneta bakarreko alde biak[28]: "pues si Tú existieras / existiría yo también de veras") *egia* bezala arduratu beharrean, nagusiki bederen (¿Qué grande eres, mi Dios (no existente)! Eres tan grande / que no eres sino Idea..."[29]), Jainkoa *kudeatzaile* bezala hobetsi du BGk. Testuinguru honetan, gizakiak ez du bizitza (Jainkoarena zein norberarena) misterio huts bezala jasaten, proiektu[30] edo

eginkizun bezala baizik (edo, Jesusen hitzak erabiltzearren, Erreinu bezala) nola etxekoandre batek baserriko gauzak eta etxekoen erlazioak kudeatzen dituen (norbaitek ama nor dugun duda egin du inoiz, ama hori nola zaindu (maite) gaituen esperimentatuz gero, norberaren 'amatasunaren' ama frogaezina zaigun arren, 'ikusi' egin ez(in) dugu eta).

Ikuspuntu honetatik, existentzialismoa ez da jadanik, ez esklusiboki, ezta nagusiki ere, 'izateko' axola, 'existitzeko' ardura baizik[31]: "La existencia humana consiste en un continuo *quehacer* que tiene que vérselas con las cosas"[32], *kudeaketa*, beraz, eta gauzekiko egitekoen artean, gizakien egoera... edo konpromisoa. "El hombre es un creador de posibilidades"[33]. Kezkarik handiena ez da gizakien *enigma* (kezka edo enigma izaten jarraitu arren) gizakia *ondo* (zer da 'ondo' hori?) bizitzea baino. Dostoievskiren *Karamazov anaiak* eleberriko Aliosha-k dioskun bezala: "Tenemos que amar la vida más que el significado de la misma".

Testuinguru honetan, Jainkoaren (eta gizakiaren) irudiera edota axola ez da, lehenik eta behin, galdera bat edo 'ikuste'ko zerbait, argia, alegia: "Con sus rayos el Sol, ciego verdugo, / las raíces te seca"[34]. Koordenatu hauetan, gizakien izaera, portaera, giza-erlazioak baldintzatzen dituen Jainkoaren irudierak Artasoko Jentilen Amarekin zerikusi (zerikasi) handiagoa du, greziarren (eskolastikoen) kausa guztien lehen Kausarekin "quem vocamus Deum"ekin baino, zeinetan "ens et bonum et verum et unum confundundur"[35]: "He amado este mundo y he anhelado verlo cada vez más humano, más abierto y más dispuesto para el gozo y disfrute de la gente *toda* del universo"[36].

Eta existentzian zer? Bada bizitza osoan 'iraskaslea' (oso zorrotz eta estua, gainera) izan zen BG 'lorezain' bihurtu zitzaigun azken urteetan, zertarako eta Arantzazura (mundura) etortzen ziren gizaki guztiak pozik egon eta zoriontsuak izan zitezen: 'Dena pertsonaren zerbitzura jarri behar da', esaten zuen (Bitorianok), bai Santutegia eta bai inguruak, txukun eta atsegin, mendiak eta sakonak ondo zainduz"[37].

Giza-existentzian Jainkoaren eta gizakiaren misterioa ulertzeari (izateari) lehentasuna eman beharrean ("En nuestro tiempo nadie se para en la fe, sino que todos van más lejos". Kierkegaard), mundua edertzeari (existentziari) arreta handiagoa eman zion BGk, gizaki guztientzako leku 'on eta eder' bihurtzeari, alegia: "Zenbat lan eta enpeño pertsona den bezala onhartzearen alde, guztiei harrera ona egitearen alde, eta iñor derrigortzearen kontra"[38]. Teilhard de Chardin-en neologismoaz esateko: Bizi-gaia (axola... ardura) "amoriser le monde" da, BGk "bere modura" gauzatu zuena: "He amado este mundo. He amado, sobre todo, este incomparable rincón de Arantzazu. Lo he amado en sus montes, dólmenes, menhires, túmulos y demás construcciones. He amado el convento, tan rico en experiencias tranquilas, de cuadros y motivos que siempre ayudan a mantener el alma en regiones habitadas por la belleza. He amado la vida franciscana... he amado el recinto sagrado de la iglesia. He amado la gente que acude a este santuario... y he amado la misericordia de Dios que aquí desciende a las almas fortaleciéndolas en la fe, en la caridad y en la esperanza cristianas"[39].

Ez da BG bide honetan bidaiari bakarra. Bidekide asko ditu, batzuen batzuk (gehienak, seguru asko) 'sinesmenik' gabeak ere bai: "El arte (SG, edertasuna, guztiek miretsia eta [guztientzat] sortarazia) es una vía de conocimiento, no sólo una forma estética de expresión. Es una

vía de descubrimiento comparable a la científica. Puede decir mucho más una metáfora que una ecuación. Porque no todo es computable, no todo es reducible a números. A veces, un acierto genial de un artista nos hace una revelación. Por eso estoy tentado de corregir a Descartes en aquello de: 'pienso, luego existo'. Es: 'Siento, luego existo'"[40].

5. Bukaera

BG idazle existentzialista izan zen (eta beste motatakoa ere bai). *Berezia* baina. Alde askotatik berezia. Zein zaigu berezitasunik handiena? Iritziak iritzi, nire ustez, BGren existentzialismoaren berezitasunik interesgarriena existentzialismoaren zikloa bete izanarena zaigu. Unamuno eskuratu ez zuena (ez da Unamunoren demeritua, noski, beste bidezidorretatik [sakonagoak ote? beste ostertzerunzkoak, agian] ibilia baitzen) nahiz susmatu bai, agian: "No busques luz, mi corazón, sino agua / de los abismos / y allí hallarás la fragua / de las visiones del amor eterno; /.../ allí, están las visiones cardinales". Zikloa bete izanarenak ez digu adierazten existentzialismoaren azken etapa honetan bizitzarekiko atxikimendua, ardura, kezka edota mina desagertu egiten zaizkigula. Existentziaren etapak *dialektikoki* bilakatzen omen zaizkigu[41]. Sentipen edo sentsazioak (goragalea versus/gehi existentziaren edertasuna sortu eta zabaltzea) pilatu egiten dira, nahastu; orekatu onenean. Gutxi ez zaiguna. Bitxiena (interesgarriena ere bai), nonbait, zera da: existentziarekiko erlazioaren bilakaera edo azken oreka BGri Jainkoaren irudiaren aldaketarekin etorri zitzaiola, euskal bizieraren inkulturazioarekin zerikusi handia duena: Sinai eremuko Jainkoaren iruditik[42] Artasoko Jentilen Amaren irudira igarotzearekin[43], alegia. Honek guztiak beste leiho bat zabaltzen digu BGren existentzialismora, zeinean sakontzea ez zaigun posible oraingo honetan.

[1] LEKUONA, J.M.: "*Elorri*, argitaldi berrian" in *Elorri*, EFA, 1989, 23. or.: "Gizona ez da arkaitz arteko elorria baizik. Historia apala berea: urtegiroan gertakariak ditu jakingarrienik. Lur bila badagi saio ederrik. Maitagarriak bezain txikiak dira gure munduko lagun minak: ilargi, ur, ardi, pago, erle, txori, sasi, izar, harri, bedar... eta nik dakita! Eta adierazi zigun: bizitza apala da, gogorra da, minbera da. Baina maitagarria ere bada. Gizonak proporzio txikia duelarik arkaitz altuen eta zeru urdinaren arteko kosmobisioan, badu, bestalde, aldian-aldiko udaberrian eta izarretan, bizitza hau orpotik irauliko denaren itxaropena". Hemendik aurrera, Bitoriano Gandiaga = BG.

[2] LEKUONA, J.M.: o. a., 12. or.: "Gerrondoko euskal poesian egon diren mugimendu nagusien artean, existentzialismoa da *Elorri*-ren kokaleku egokiena". KORTAZAR, J.: *Literatura Vasca. Siglo XX*, Etor, Donostia, 1990, 154. or.: "Bitoriano Gandiaga crea atmósferas delicadas, sin olvidarse de los movimientos contemporáneos. Así, el existencialismo tienen una importancia evidente en su obra".

[3] FERRATER MORA, J.: *Diccionario de filosofia*, Ariel, Barcelona, 1994,1175. SCHILLEECKX, E.: *Cristo y los cristianos*, Ediciones Cristiandad, Madrid, 1982, 714. or.: "El existencialismo ha analizado los 'existenciales', es decir, las situaciones fundamentales de la vida humana: angustia, desesperación y esperanza, sufrimiento, muerte y felicidad, caducidad y culpa. Todos estos aspectos son muy importantes en la existencia humana y están relacionados con el problema de la auténtica dignidad del hombre".

[4] Fortunecity.com: "Heidegger, al igual que Pascal y Kierkegaard ("Existir es ser para la muerte". Sartre: "Existir es ser para la nada"), reaccionó contra el intento de fundamentar la filosofía sobre una base conclusiva racionalista. Heidegger afirmó que la humanidad se encuentra en un mundo incomprensible e indiferente. Los seres humanos no pueden esperar comprender por qué están aquí. Cada individuo ha de elegir una meta y seguirla con apasionada convicción, consciente de la certidumbre de la muerte y del sin sentido último de la propia vida".

[5] GANDIAGA, B.: "Gandiaga edo arimaren strip-teasse poetikoa", *Hemen*, 87.01.02, 25. or.: "(Umetan) Zintzoa, sentibera eta sufritzeko doai asko nituen, baina ez nuen angustia partikularrik".

[6] GANDIAGA, B.: "Nere obraz", *Hegats* 4, 1991, 214. or.: "Nik neure moduko poesia soziala egin nuen".

[7] VILLASANTE, L.: "Ataria", in *Elorri*, AFA, 1962, 10. or.

[8] GANDIAGA, B.: Argitaratu gabea.

[9] LEKUONA, J.M.: o. a., 12. or.

[10] ZAMBRANO, M.: "La religión poética de Unamuno", 177-178. or.: "La tiene siempre un contenido recibido. Visto, como verdad –visto, no pensado–. Fe es visión". UNAMUNO, M., ¡No busques luz, mi corazón, sino agua: "Con sus rayos el Sol, ciego verdugo, / las raíces te seca".

[11] LEKUONA, J.M.: o. a., 12. or.

[12] VILLASANTE, L., "Ataria", o. a., 11. or.: "Liburuak badu gai zabalagorik, orokorragorik, eta giza-biotzarentzat ukigarriagorik. Giza-bizitzaren problema, bere galdekizun larriekin, bere burruka latzekin, bere kezka ta miñarekin, bere yoranekin, aragiaren eta izpirituaren arteko konpondu eziñakin, eta giza-bizitzako misterio onentzat dagoen erantzun aundi bakarra: fedetik eldu den erantzuna, alegia".

[13] Ikus ere 90. or: "Itxaropen eta gomuta, / zorion ta naigabeak, / begi-barnetan biltzen ditue / euren ekaitz ta bakeak. / Fedearen eskuetan / itzi nebazan neureak". 132. or.: "Lurrezkoak gara, baiña / gure lurrean ba-da / –leengo potingoan, / uren ondakin bat lez–, / joranez dagoan / siñesmen-erlaus zaar bat".

[14] LEKUONA, J.M.: "*Elorri*, argitaldi berrian", o. a., 13. or.

[15] AZURMENDI, J.: "Epilogoa", in *Hiru gizon bakarka*, Elkar, 1991, 200. or. "Lehen elorriaren sinboloaz baliatu nintzen moduan, txakolinarenaz hemen". Txakolina gustagarria eta mikatza da batera.

[16] "gauaren zale dira, heriotzaren esku utzi gaituzte, ezoa ostu diete gure sustraiei" (138. or.).

[17] *Euskaldunon Egunkaria*, 01.02.22, 41. or.

[18] Pio X.a.

[19] TERESA LISIEUXKOA: *Idazlan guztiak*, C Eskuizkribua, Karmel, Markina-Xemein, 1996, 199. or.: "Onartzen du (idazleak) atsekabe-ogia jatea zuk nahi dezazun denbora guztian, eta ez du nahi bekatari gaixoek jaten duten samintasun-mahai honetatik jaikitzerik zuk izendatutako eguna iritsi arte".

[20] GANDIAGA, B.: "Gandiagarekin, esperantza urratu nahi eta ezinean", *Argia*, 1985, 1049. zk., 28 or.

[21] GANDIAGA, B.: *Denbora Galdu Alde*, 89-90. orr.: Filosofia nahiko / egin dudan arren, / ezin dut zokoratu / hainbat dolamen. / Buruz ia lortu dut / pixka bat atseden, / arrazoiei amore / emanez, bederen; / baina ta sentipen / zakurra dut hemen / hasperenka baten, / ez bait da argudioz / asebetetzen. / Gogoeta ilunen / basoan ihardun naiz / airea erdibituz / saminezko aiz. / Bizitza ukapen da / sobera ere maiz, / alferrik da bat kristau, / fraide eta apaiz, / eztu larri ezbaiz, / ikuspegi eslaiz, / nazka nuen erraiz / jasanezin guztiak / oka bota nahiz. / Beharbada bizitza / uko luze bat da / inausiz datorkigun / aizkorakada.../

[22] *Biziminez*.

[23] Arantzazun 01.08.17ko omenaldiko txatala.

[24] Banaketa hori izan da gizarte literatura kutsatu eta hondatu ohi duena. ROVIRA, P.: *La poesía de Jaime Gil de Biedma*, o. c., 33. or.: "El problema de la poesía social, paradójicamente, se deriva de una comprensión muy superficial de lo social, puesto que lo primero que debiera de entender un poeta que se quisiera 'social' es el papel que puede jugar en su contexto, un papel que, dadas las circunstancias sólo podía tener interés asumiendo el personaje hasta el fondo, es decir, aceptando críticamente la voz de la propia clase, constituyéndola así en 'testimonio' de un punto de vista social, en lugar de pretender superarla mediante la truculenta identificación con –y suplantación de– un 'pueblo' bastante desconocido".

[25] GANDIAGA, B.: *Hegats*, o. a., 209. or.

[26] VILLASANTE, L.: "Ataria", in *Elorri*, EFA, Oñati, 1962, 19. or.: "Gandiagaren tankera berezi-berezia dala iruditzen zait". ARRUTI, D.: *Euskaldunon Egunkaria*, 01.02.22, 41. or.: "'Bitxia zen Gandi', eta artista bat zela".

[27] DIEZ DE LA CORTINA, E.: "Existe un existencialismo optimista y teológico, que estaría representado por L. Lavelle (1951), Gabriel Marcel (1973) y Renato Le Senne (1954). Los teólogos protestantes alemanes Paul Tillich y Rudolf Bultmann, el teólogo católico francés Gabriel Marcel, el filosofo ortodoxo Nikolái Berdiáiev y el filósofo germano-judío Martín Buber heredaron muchas de las inquietudes de Kierkegaard, en particular respecto a la creencia de que un sentido personal de la autenticidad y el compromiso resulta esencial para la fe religiosa".

[28] TILLICH, P.: "El misterio de (la palabra) de Dios es nuestra preocupación, porque es el fondo de nuestro ser".

[29] UNAMUNO, M.: *Rosario.*

[30] SARTRE, J.P.: "El hombre es ante todo un proyecto que se vive subjetivamente".

[31] SARTRE, J.P.: "La existencia precede a la esencia".

[32] DIEZ DE LA CORTINA, E.

[33] URIBE, G.: "El existencialismo no ha muerto": "El hombre es posibilidad abierta, *libertad* de hacerse esto y lo otro. Elección. Ahora bien, en la medida en que el hombre está *arrojado al mundo*, ha de contar con aquello que le es 'dado', las circunstancias (tratadas ampliamente por Ortega y Gasset) que limitan sus posibilidades y su libertad. La autenticidad consiste en no renunciar a la libertad bajo ninguna circunstancia: no dejarse caer entre las cosas como una más de ellas (facticidad)... El hombre es ante todo posibilidad, es un ser posible y además creador de posibilidades y siendo una posibilidad en concreto antes de las otras posibilidades que puede fabricar, es por ello mismo libertad. Ahora bien, esa libertad, contrariamente a lo que podría pensarse, no le otorga automáticamente tranquilidad, sosiego, bienestar; por el contrario, esa particularidad, ese principio de libertad intrínseca le obliga a ser más cuidadoso consigo mismo por cuanto le ofrece una inmensa diversidad de opciones para elegir y lo lleva también a curarse de sí mismo. Lo coloca en un mundo de posibilidades obligándolo a elegir una y otra. Y esa elección, aparte de esclavizarlo, lo angustia, lo obliga a esmerarse por ser mejor, aunque en ciertos casos lo vuelve responsable en tanto que lo lleva a ser mejor, a perfeccionarse, a ser perfecto como Dios, desde luego, sin lograrlo nunca, lo que le hace decir a Sartre que el hombre es un dios fracasado".

[34] UNAMUNO, M.: *No busques luz, mi corazón, sino agua.*

[35] GANDIAGA, B.: "Ala-Deltan olgetan", o. a., 25. or.: "Zenbat aldiz eraso ote nion Villasanteri, Aristotelesen logikaz landa dagoen edo usmatzen, edo usnatu uste dudan beste erakarpen edo ondoriobide ederrik badagoela ekinez".

[36] GANDIAGA, B.: "Muy amado Jorge: paz y bien", o. a., 60. or. BOFF, L.: *San Francisco de Asís. Ternura y vigor*, o. a., 219. or.: "Su fe no le alienó del mundo ni hizo de éste un mero valle de lágrimas, sino que, por el contrario, lo transformó, mediante la ternura y la solicitud, en patria u hogar del encuentro fraterno, donde los hombres no aparecen ya 'como hijos de la necesidad, sino como hijos de la alegria' (g, Bachelard). Podemos danzar en el mundo, porque el mundo es el teatro de la gloria de Dios y de sus hijos".

[37] ZURIARRAIN, J.T.: "Bitoriano Gandiagaren hilletak", o. a., 20. or. Honetan BG Jesusekin bat dator, *Barri Ona*ren pasajerik ederrenetariko batean. 'Bestea' edo 'hurkoa' nor zaigun galdetu zionari ("Yo soy otro". Sartre), Jesusek ez zion definiziorik (izaterik) eman, narrazio edo biziera bat baizik; Samariar onarena. "Behin batean, gizon bat zihoan Jerusalendik behera...". Luk 10, 25.

[38] GANDIAGA, B.: "Bitoriano Gandiagaren hilletak", o. a., 20. or.

[39] GANDIAGA, B.: "Muy amado Jorge: paz y bien", *Gara*, 01.02.22, 60. or.

[40] SAMPEDRO, J. L., *XLSemanal*, nº. 938, 16-22 de octubre de 2005, 36. or.

[41] Proba modura ikus BGren erreakzioa heriotza hurbila jakinarazi ziotenean: "Nik bizitzari heltzen nion, hortxe itsatsita bainegoen. Bizitzeko gogo handia nuen eta amets ugari ere banituen gerorako. Baina egun gutxirako nengoela esan zidanean, malko galantak botata gero onhartu nuen."

[42] Ir 20 20: "Moises mintzatu eta Jainkoak trumoihotsez erantzun zion".

[43] *Hiru gizon bakarka*: "Pagadian pagoak, / zelaian belarra... Artason ter-ter / uren zarata..."



PIERRE HASKI. *El diario de Ma Yan*. Naeva Ed., Madrid, 2004.

Ikasi egin gura dot!

Neska baten aldarri ozena kontrastez beteriko gaurko Txinan[1]

Ningxia Txinako iparraldeko eskualde autonomo bat da eta bertan 6 milioi biztanle inguru bizi dira. Iparraldetik Barruko Mongoliagaz daukaz bere mugak eta hegoaldetik Gansu probintziak besarkatu egiten dau, bere altzoan hartu gura baileuan. Iparekialdetik Shaanxi probintzia dau mugakide tarte txiki baten. Klima kontinental gogorrak zeharo baldintzatzen dau hango nekazaritza eta sikate amaibakoek pobretu egiten ditue bertako lurginak, zorpean bizitzen behartuaz. Izan be, Ningxia basamortu gorria litzateke Ibai Beilegiak (Huang He) hango paraje batzuk ureztatuko ez balitu. Parajeotan bizi da bertako jenterik gehiena.

Ningxian, Tang dinastiaren garaian (618-907) bertara hurreratutako gitxiengo musulman bat bizi da –arabiar eta iraniar jatorrikoa gehienbat–, Yuang dinastiaren urteetan (1271-1368) Asia erdikaldetik joanikoakaz sendotu zana. Gizatalde horretan kokatu behar doguz *hui*-ak, gaur egun Txina osoan bederatzi bat milioi diranak[2]. Edozelan be, Ningxia da huien eskualde autonomo bakarra, nahiz eta bertan huiek populazioaren heren bat baino ez daben osotzen. Bizimoduari jagokonez, azpimarratu behar da huiak, Islamaren praktikatik aparte, ez dirala asko desbardintzen gainontzeko txinatarrakandik, ez bada erabili daroen kapela zuriagaitik.

Era berean, esan beharra dago huiak Ningxia probintziako hegoaldeko lur idor, antzu eta mortuetan bizi izanaren arrazoia XVIII eta XIX. mendeetan sufritu izan zituen jazarpen erlijiosoetan aurkitu behar dala. Izan be, nekazari behartsuok alboko Shaanxi probintziatik ihesi, Ningxia eskualdeko lekurik mortuenetan aurkitu eben sosegu eta aterpe, nahiz eta euren bizitza betiereko pobreziak markatuta geratu zan.

Inguru honexetan, "Egarriaren Herria" deituriko eskualdean –Xiji, Haiyuan eta Guynan distritoek osatzen daben triangelua–, dago Zhang Jin Shu, Ma Yan neska gaztearen jaioterria. Herritxu honetatik eskola dagoan gune nagusira, Yuwang-era, hogei bat kilometro dagoz eta Ma Yanek astero birritan egin behar izango dau distantzia hori, gehienetan oinez, yuan[3] bat ez gastatzearren. Estutasunek eta gabeziek baldintzaturik, nerabea Ma Dongji aitagaz, Ba Juhua amagaz eta bere neba gazteago biakaz bizi da, beti be gaurko Txinako hazkunde ekonomiko eta aldaketa sozial nabarmenetatik aparte.

2000ko irailaren 2an, 13 urte zituala eta oinarrizko ikasketen azken urtea egiten egoala, Ma Yan eguneroko bat idazten hasi zan, 2001eko abenduaren 13an amaituko dauana. Horretarako eskolako koaderno batzuk erabili zituan, baina euretariko batzuk ke bihurtu ziran, neskaren aitak zigarroak egiteko erabili zituan eta.

Koadernootan Ma Yanek bere egunerokotasuntxua kontatuaz batera, bere amets, kezka, irrika, itxaropen eta ezintasunen partaide egiten gaitu. Kontua da, Ma Yanen amak idazki xume-indartsuok Pierre Haski kazetariaren eskuetan itxi zituala, *Libération* egunkariaren Pekingo korresponsalak Ningxia probintziara eginiko bidaia baten. Eta egunerokoagaz batera ama minduak alabak idatzitako eskutitz urragarri bat be luzatu eutsan kazetari arrotzari, harek, zelan edo halan, familiaren egoera arinduko eukean zeozer egin eikealakoan.

Aitaturiko gutunean, sufrimendu askogaz eta ikaragarri kostata (gosea[4], ibilaldi amaibakoak, diru-estutasunak...), Yuwangeko internaduan ikasten dauan nerabe adoretsuak bere ikasketen jarraipena arriskuan ikusita, amorru biziz eta ahal dauan bezain zoli deadar egingo dau, "*Ikasi egin gura dot!*" aldarria lau haizeetara zabalduaz. Bide beretik, itaun sakon bat luzatzen deutso amari eta honen bitartez Txinako gizarteari, neskatoek be ikasteko daukien eskubidea azpimarratuaz. Honan nerabearen aldarria:

Astebeteko oporraldia dot. Amak aparte naroa: "Alabatxu hori, berba egin behar dogu". Nik erantzun: "Ama, zeozer esan behar badeustazu, aurrera! Esan beharrekoak ez dira ixilpean gorde behar...". Baina bere lehenengo hitzek triste be triste itxi ninduen: "Uste dot hauxe dala eskolara joango zaran azken aldia". Begiak urtenda begiratzen deutsat eta itaundu: "Zelan esan zeinkit holako gauza bat? Gaur egun ikasi barik ezin da bizi. Baserritar batek berak be ikasketak behar ditu lurra lantzeko, ostantzean ez dau ezer be batuko eta".

Amak barriro be badaragoio: "Zuok hiru zarie eskolara joateko eta behar egiten dauan bakarra aita da, gugandik urrun. Horregaz ez da nahiko". Larriduraz beteta nik itaundu: "Horrek esan gura dau etxera hueltatu behar nazala?". "Baietz", amak. "Eta nire neba biak?" nik. "Zure nebek jarraitu ahal izango dabe ikasten". Sutu egiten naz: "Zer dala-ta ikasi leikie mutilek eta neskok ez?". Amak irribarre nekatua dauka: "Gazteegia zara... Handitzean ulertuko dozu".

Aurton daborduko ez dago dirurik eskolara joateko. Etxean nago eta soloan egiten dot behar nire neba gazteagoen ikasketak ordaindu ahal izateko. Eskolako barreak-eta gomutatzen dodazanean, bertan nagoela iruditzen jat. Zelan gustauko litzakidan ikasten jarraitzea! Baina nire familiak ez dauka dirurik.

Ikasi egin gura dot, ama, ez dot etxera hueltau gura! Itzela litzateke eskolan betiko geratu ahal izatea!

Ma Yan
2001eko maiatzaren 2an[5]

Handik denpora laburrera (2002-01-

11), Frantziako *Libération* egunkarian agerturiko erreportaia batek ezagutuazo egingo dau Ma Yanen idazkia Frantzia osoan eta alkartasun korronte indartsua sortuko da, Ma Yan eta haren egoeran egozan ikasle behartsu gaztetxuei laguntzeko. Mugimendu horrretatik *Enfants du Ningxia* alkartea sortu eta diru-kutxa bat atonduko da Txinako eskualde urrun eta ahaztu horretako familiei bekak eta diru-laguntzak emoteko.

El diario de Ma Yan liburuan zehar, nerabe adoretsu honen lekukotasunari esker eta egileak damoskuzan argibideek lagunduta, irakurleak turismo-zirkuituetatik kanpo dagoan Txina ezezagunera egin leike bidaia. Era berean, posible izango dau ikustea XXI. mendeko Txina modernoaren lorpen ekonomiko izaugarriak ez dirala bardin heldu probintzia eta eskualde guztietara.

Baina, batez be, liburu honek gonbitea luzatzen deusku hezkuntzaren balioaz hausnartzeko. Izan be, pobre, baztertu eta marginatuentzat hezkuntza erredentzio-bidearen hasiera izan ohi da eta herrientzat progresoaren zimentarri sendoenetarikoa.

[1] Haski, Pierre: *El diario de Ma Yan*, Naeva Ed., Madrid, 2004, 199 or.

[2] Gaurko Txinan hamar minoria musulman dagoz, guztira 20 milioi pertsona inguru batzen dituenak.

[3] Txinako txanpona. Euro batek hamar bat yuan egiten ditu.

[4] "No es posible describir el sentimiento de pasar HAMBRE" dinosku 131. orrialdean, azken berba maiuskulaz idatzirik.

[5] *El diario de Ma Yan*, 25. or. Itzulpena gurea da.

Iñaki Sarriugarte Irigoien



Arratiako idazle aitzindarien antologia. 2005, 554 or.

Alkarlanaren frutua

Joan dan urriaren 7an *Arratiako idazle aitzindarien antologia* izeneko liburua aurkeztu eben Axpe Goikoa jatetxean, Diman. Haraxe batu ziran proiektu hau zuzendu daben hiru pertsonak (Gotzon Aurrekoetxea, Inaki Esparza eta Angel Larrea), antologiarako lantxoak egin dabezan ikertzaileak, antologian aitatuten direan autore bi (Lino Ayesta eta Faustino Etxebarria), liburua babestu daben alkarteetako ordezkariak, eta lagunak. Gontzal Mendibil abeslariak be bizpahiru abesti eskaini ebazan antologiako Esteban Uriarte gogoan hartuta.

Liburu hau 2004an argitaratatutako *Arratiako idazle aitzindariak* liburuak zabaldutako bidetik dator. Orduko haretan, Inaki Esparzak eta Angel Larreak Arratiako hogeta hamahiru idazle aurkeztu euskuezan, batzuk ezagunak, besteak jente askorentzat inoz entzun bakoak.

Bigarren liburu honetan, Arratiako idazle aitzindarien antologia egin gura izan da. 31 idazle hautatu eta Arratiako 36 filologoren esku itxi dira, bakotxak (batzuetan binaka ipinita) lantxo bat atondu eta liburu honen bidez jenteari ezagutarazoteko. Lehen be esan dodan lez, idazle batzuk sano ezagunak dira, besteak beste, Pedro Antonio Anibarro, Lino Akesolo, Gabirel Manterola; beste batzuk, barriz, ezezagunagoak. Beste horrenbeste esan geinke filologoen gainean be, batzuk ezagunak direalako (ez dot izenik aitatuko, ez dot-eta inor haserratzerik gura), eta beste batzuk ez horrenbeste. Paralelismo ederra, inon egotekotan.

Lanak bata bestearen atzean ipini dira, idazlearen abizenetik ordenauta. Modu horretan, idazle baten edo bestearen lana ezagutzeko kuriosidadea euki ezkero, irakurleak segiduan jo leike idazle horri buruzko beharrera, denporea arpelik galtzean ibili barik.

Irakurlea atoan konturatuko da lanak ez direana bardinak, askatasun osoz egin dira eta. Lan askotan, idazlea eta lanaren testuingurua aurkezteaz gainera, bestelako argibideak be emon dira.

Nire eretxian, onena proiektu hau zuzendu dabenen berbak hona ekartea izango da, honen lanonen helburua argi baino argiago azaltzen dabe eta:

> "*Produktu nahiko berria da euskal kultura edo letretan. Liburu batean eremu bateko idazleen pentsamendua zabalduko da, euren lanetik zatirik garrantzitsuenak argitaratuz.*
>
> *(...)*
>
> *Aldi berean, idazle arratiarren testu edo lan garrantzitsuenen antologia egiteak eragin handia izango du Arratiako eta inguruko irakaskuntzan eskoletan eta institutuan bertako idazleen lanak irakurtzeko aukera izango dutelako*".

Amaitzeko, esan dodan hori guztiori berba baten laburtuko neuke, horraitino: alkarlana. Arratian altxor asko badaukaguzala eta alkarregaz behar egiteko eta hori altxorrori lau haizetara zabalduteko kapazak gareala argi eta garbi esan dogu.

Zorionak eta barriro be alkartu arte!

Arantza Etxebarria Iturrate